

2014ko Otsaila



Oñatiko Udala 236. zkia.

KONTZEJUPETIK

- Euskal Herria nazionala da
- Euskal Herriak bere etorkizuna erabagitzeko eskubidia du
- Euskal Herriak bere etorkizuna erabagi hori hartzea

Hala zabaldu unibertsitateak, dogak, gaur, Oñatiko 1.3.2014.

GURE
ESKU
DAGOK



Erabakitzeko eskubidearen aldeko adierazpena

Gure Esku Dagok deituta pentsamolde ezberdineko
ehun herritarrek egin dute bat testuarekin



Erabagitzeko eskubidiaren
aldeko oñatiko adierazpena

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

**KURTZEKUA
PROMOZIOA**

(12 etxebizitza)

Prezio bereziak!



Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

Liburutegiko BERRIAK

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua




HAUR LITERATURA
"Animalitxoek ipuin klasikoak"
Tartalo.




LIBURUA
"Hildakoen eremuan"
Ibaizabal.



MUSIKA ALDIZKARIA + CD
"Entzun"



CD + LIBURUXKA
"Pobresia: Burgosaren gaurdiko eztula"



LIBURUA
"Fotografía para todos"
Lunweg.



LIBURUA
"Seda"
Alessandro Baricco.



CD MUSIKA + LIBURUA
"Galiza"
Kepa Junkera. Boa.

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 - 13:00 / 16:30 - 20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 - 19:30



autonomia
hezkidetza
aniztasuna
euskara
emozioak
hezkidetza



zer da ludoteka?

Oñatiko haurrek, euskaraz jolastuz, lagunartean ondo pasatzeko gunea.


3-9 urte bitarteko haurrak denek elkarrekin jolasteko aukera.

Ludotekako haur eta hezitzaileen artean, urteko programa osatu eta adosteko aukera, haurren adierazpen eta parte hartze eskubidea errespetatuz. Elkarlanean sortuko ditugu jolas, irteera, eskulan, lehiaketa, antzerki eta beste hamaika kontu. Ludotekan jolasteaz gain, herriko kale eta parkeetan ere arituko gara.

Familiak ludotekako ekintzetan zein antolaketan parte hartu ahal izango dute. Proposamenak luzatu daitezke.



Oñatiko Udala




UDAL BERRIAK

- 4 Gutunak
- 6 Tokiko Gobernuari Galdezka
- 7 Talde politikoen iritziak
- 8 Herritarren iritziak
- 10 Elurrari aurre egiteko prest dago Udala
- 11 Mugikortasun Plana azken txanpan
- 12 Hondakinentzako larrialdi guneak erabiltzeko telefono bidezko sistema
- 14 Ludoteka zerbitzua martxan berriz ere
- 15 Gazteei zuzendutako sexologia aholkularitza eta informazio zerbitzua
- 16 Lan orientazio zerbitzua



GURE HERRIAN

- 18 Enpresa ekimen berriak
- 20 Antxiñako Leintz Bidea berritzen ari dira Garagaltzako auzotarrak auzolanean
- 22 Erabakitzeko eskubidearen aldeko Oñatiko Adierazpena
- 24 Lege Soziologia institutuak 25 urte betetzen ditu aurten
- 26 Garai eta Lazkanoiturburu agustino oñatiarrak omenduak Manisesen
- 28 Torturaren inguruko erakusketa



KIROLAK

- 30 Spinning zaleentzako I. Master Zirkuitoa
- 31 Aloña Mendi Atletismo taldea Euskadiko azpitxapelduna krosean
- 31 Urrezko Aizkora lehiaketako finalerdia jokatu da Oñatin



KULTURA

- 32 Helduentzako ipuin kontaketa saioa udal liburutegian
- 32 Zuazola Institutoko kultur jardunaldiak
- 33 XVIII. Ingurumen Jardunaldiak
- 34 DIY ikastaroa antolatu du Udalak
- 34 Bide Ertzean taldearen kontzertua
- 35 Haur eta nagusientzako antzerkiak
- 36 ETEOko proiektuaren bigarren fasea
- 38 Antxiñako Fotografixia

irritziak





INFORMAZIO GEHIAGO

39.

orrialdean



GUTUNAK

Gutunak ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorlaren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Zer esaten den bezain garrantzitsua da nola esaten den

Leire Fdez Iñurritegi

B Gabonetako arratsalde batean, arratsaldeko seirak inguruan hain zuzen ere, San Lorentzeko parkean umeekin jolasten geundela, bi gazte etorri eta igogailuaren alboan geratu ziren. Eskoba bat eskuetan hartuta, paretan kola eman eta kartel handi bat ipintzera zioaztela konturatuta, beraingana gerturatu nintzen elkarriketa bat mantentzeko intentzioz:

-Barkatu, kartelak ipintzeko adierazpen libreko guneak daude herri osoan zehar. Mesedez, horretarako leku horiek errespetatu, kola horrek kalte handiak egiten bait ditu herriko paretetan.

- (Gazteak: ixilik, aurpegira begiratu ere egin gabe, beraien lanari ekinez).
- Barkatu, entzun didazue?
- (Ixilik, oraingoa ere).
- Arazoren bat belarrietan?
- (Ixilik, beraien lana bukatzen).
- Ez, nabarmena da arazoa edukazioan eta herritarrenganako errespetuan daukazuela.

Horrela bukatu zen, tamalez, azkenean monologo bihurtu zen berbaldi deserosoa.

Hurrengo goizean herria erabat bisualki kutxatuta esnatu zen. Harritzko, metalezko zein pinturazko paretak, eraikin askotako zutabeak, kontainerrak, autobus geltokiak, telefono kabinak... tamaina eta material ezberdinetako kartelez leporaino beteta zeuden. Eta niretzako ekintza esanguratsuenak, adierazpen libreko guneen panelak libre

izanda, hauen kanpoan eta zuela egun gutxi margotuak izan ziren paretetan kartelak kokatzea izan zen.

Nire eritziz, ekintza horrek gustoko ez dudun jarrera bat adierazten du: mezu hori zuzendua dijoan hartzailearekiko begirune falta. Zer esaten den bezain garrantzitsua da nola esaten den, eta kartelak iragartzen zuenarekin ados egon arren, ezin dut berdina esan nola adierazi zenari buruz.

PNV lapurtzen dabil

Ibai Etxebarría Arrazola, Ander Lizarralde Lizarralde, Miren Intxauste Arregi eta Guren Zumalde auzmendi (San Martin-eko etxe okupatuko kideen izenean)

PNV-k herritarren dirua kumunzulotik botatzen dihardu AHT-a eraikitzeko. Lapurretara hutsa!

Europarekin lotu behar omen gintuen AHT-ak. Modernitatearekin lotu behar omen gintuen. Azkenean ez bat eta ez bestea. Frantziako gobernuak esana du AHTren eraikuntza 2032 urtera arte (gutxienez) atzeratuko dela. Baina despilfarroak aurrera jarraitzen du ...

AHT-ren obra osoaren kostua EAE eta Nafarroa batuz gero 10.000.000.000 eurokoa da. 2014. urterako PNVren aurrekontu proiektuak 366.000.000 euro aurrakusten ditu AHT-arentzat. Aldi berean hezkuntzan, osasunean ... murrizketa latzak egingo dituzte: 370.000.000 eurokoak.

Gobernuek gastu sozialetan murrizketa gogorak agindu eta kapitalismoaren krisiaren zama herritarren gain botatzen dituzten bitartean, AHTren eraikuntzan baliabide

kopuru itzelak xahutzen ari dira.

Errentagarritasunik ez duen amaigabeko zuloa eta etorkizuneko belaunaldientzat hipoteka onartezina da AHT-ren ondare bakarra.

Lehenbailehen gelditu beharko litzateke izaera anti-soziala duen egitasmo erraldoi hau.

AHT-aren gastu osoaren (6.000 milioi) %60a egin gabe dago oraindik. Herritarrei dirua lapurtzen jarraituko al du PNV-k ?

Gallardon, gure gorputza gurea da

Irati Garai, Oñatiko Sare Feministaren izenean

Itxaroten geunden, bagenekien Alberto Ruiz Gallardon justizia ministroak abortuaren lege erreforma proposatuko zuela. Baina honen aurrean ezin gara ez isilik, ez geldirik egon!

PPren lege erreforma honen bidez abortatzea debekatuko digute. Egungo legegari esker 14 astetaraino libreki abortatzeko eskubidea deuseztatuko da eta 2 baldintzatan soilik abortatu ahal izango da: bortxakeria kasuan, 12 asterarte, eta emakumearen osasuna arrisku larrian dagoenean, 22 asterarte. Hori horrela, umekiak malformazioak izatea ere ez da abortatzeko baldintza izango. 2 baldintza hauen kasuan ere abortatu ahal izateko jarraitu beharreko irizpide medikoak zorrotzkoak dituzte gainera eta aholkularitza behartu: guztira 3 medikuren onarpena jaso beharko du emakumeak. Ez al gara gure gorputzarekin eta bizitzarekin egin nahi duguna erabakitzeko gai?



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI



FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Abortatzeko eskubidearen kontrako eraso larria iruditzen zaigu lege erreforma hau, ez baitigu gure gorputzaren gainean erabakitzen uzten. Haurra izan edo abortatuko duen erabakitze eskubidea oso-osorik emakumearena da eta ez politiko, epaile edo inongo gotzainarena.

Gauza jakina da gainera, eskubide honen debekuak ez duela abortuekin bukatuko. Abortatzen jarraituko dugu, baina modu klandestinoan, honek dakartzan ondorio larriekin: baliabide ekonomiko handiak dituztenek soilik abortatu ahal izango dute, beste herrialde batera joanez; baliabiderik ez dutenek ordea, euren bizitza eta osasuna arriskuan jarriko dute aborto klandestinoetara joz.

Emakumeok, emakume sentitu eta izateko ez dugu amatasunaren beharrik eta erreforma honekin, azken finean, horretara soilik mugatzen gaituzte, hori baita Espainiako eskuin muturreko kontserbadore faxisten ustez gizarte honetan dugun papera. Esan beharra dago, Alderdi Popularra, urteetako emakumeon borroka etengabeari esker lortutako guztia deuseztatzeko gai ez litzatekela izango Eliza katolikoaren babesik gabe. Abortatzeko eskubidea, ideologia patriarkal kontserbatzaileak kendu nahi digu.

ZUZENKETA

Aurreko zenbakian, Udalak onartu dituen 2014ko udal aurrekontuen berri ematean, akats bat egin genuen, 'Aurrekontuak Departamentuka' taulan. GIZARTE ZERBITZUEN saileko aurrekontua -%5,83 jeitsiko dela jartzen zuen, baina ez da zuzena, igo egingo baita (+%5,83) aurrekontua.

OHAR ETA DEIALDIAK

► Presoen aldeko zozketan saritua

Herriko presoen alde Tantz Tanta ekimenak Gabonetan antolatutako zozketan **2256** zenbakia (ordezkoa 2095) atera zen saritua. Rosi Lucasek zeukan zenbaki saritua, eta berak jaso zuen oparia, gabonetako saski zoragarria, ondoko argazkian ikusten den moduan.



► Musika Eskolako argazki zaharrak bildu nahi dituzte 25. urteurrena ospatzeko

Aurten 25 urte betetzen ditu Jose de Azpiazu musika eskolak eta, besteak beste, mende laurden honetako ibilbidearen erakusgarri izango den argazki erakusketa antolatu nahi dute. Beraz, halakorik etxean edukiz gero, musika eskolari uztea eskatzen dute, berdin paper formatoan edo berdin digitalean. Argazkiak otsailaren 14a baino lehen bidaltzea eskatzen da, musika eskolara bertara, edo emailaz (idadkaritza@jazpiazumusikaeskola.com). Argibide gehiago: 943783174

► Atxabaltan eta Arrasaten bizi diren Txantxikuen afaixa

Datorren martxoaren 21ean, ostirala, afaixa egongo da Arrasateko Leintze elkartearen. Arrasate eta Atxabaltan bizi diren oñatarrak daude gonbidatuta parte hartzera. Izen-ematea martxoaren 19ra arte dago zabalik (Uriarte-635721430 / Pasku-696777397). Ondo pasaukoxu!

► Aloñako Lagunen Zuhaitz Eguna martxoaren 2an

Aloñako Lagunak elkarteak urtero antolatzen duen Zuhaitz Eguna martxoaren 2an izango da aurten, Natur Eskolakoen eta Imanol Artola eta Jon Ugarte basozainen laguntzarekin. Durun izango da hitzordua, goizeko 9:30etan. Aurten, gainera, Juan Karlos Igartua adiskidea izango dute gogoan, eta zuhaitz bat landatuko dute haren oroimenez Lizartza inguruan. Herriar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera. Izena emateko bi aukera daude: emailaz (aloinagalunak@gmail.com) edo Fernando Maiztegiren Patrua Kaleko tailerrean izena emanda.

► Ate irekiak Enpresagintza fakultatean

Mondragon Unibertsitateak ate irekien egunak antolatu ditu, instalazioak eta eskaintza akademikoa erakusteko. Oñatiko Enpresagintza fakultateari dagokionez, hiru egun izango dira: otsailak 8, martxoak 22 eta maiatzak 10. Goizeko 11etan hasiko dira bisitak. Aurrez izena ematea eskatzen da 902 110 436 zenbakian. MUren gainerako fakultateetako ate irekien inguruko informazioa www.mondragon.edu/prest atarian.



Etxe-Aundik zerbitzurik onena eskaini nahi dizu:

- **Ezkontzak**
- **Asteburuko menu bereziak**
- **Enpresen harrera ekitaldiak**

www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi
Herria - Jaitzea





ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

BELAR, S.A. Irrati -Telebista

expert

Olakua, 1 - C behea
Tel. / Faxa: 943 78 06 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

FAGOR
SIEMENS
SONY
PHILIPS
FAGOR
SIEMENS
SONY
PHILIPS



UDALETXEKO AKTAK PUBLIKO EGITEA



Zergatik ez dira jartzen udalaren webgunean Tokiko Gobernu Batzarra eta Plenoetako aktak? Publikoak dira, herritarren interesekoak, eta gaur egungo teknologiak baliatuz, interesgarria litzateke bertan egotea, edozein kontsulta egin ahal izateko?



1.- Plenoko bilerak publikoak dira, beraz ez litzateke egongo inolako arazorik bertako aktak Oñatiko Udalaren web orrian zintzilikatzeko eta horrela egingo dugu. Dena den, erabakiak hartzerakoan zenbait kasutan datu pertsonalak erabiltzen dira eta horiek Datu Pertsonalak Babesteko Legearen arabera ezin dira publiko egin, beraz horiek ezkutatu ondoren aukera hori egongo litzateke.

2.- Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak ez dira publikoak Toki Korporazioetako antolaketa, funtzionamendua eta erregimen juridikoa garatzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 zki.-dun Erret Dekretuko 227.2 artikuluaaren arabera, beraz bilera horietako aktak ezin dira argitara eman. Nolanahi ere, kasu honetan ere bertan hartzen diren zenbait erabaki herritar ororen interesekoak direnean herri komunikabideetara zabaltzen dira.

AUTOBUS GELTOKIAK



Kalegoiena eta Aita Lizarraldeko autobus geltokiek, ez daukate pantaila informatiborik, lehen Euskadi etorbidean zeudenean bazeuden baina hurak aldatzean, ez ziren beraiek aldatu. Gainera bai Kalegoienan eta Aita Lizarralden markesinak aldatzean, tubo berriak sartu ziren pantailai argindarra emateko asmoz. Zein da horiek martxan ez egotearen arrazoia?



Euskadi Etorbideko autobus geltokian azpiegitura prestatu zen, baina ez zen pantaila informatiborik jarri, San Lorentzon, Olakuan eta Korreosen egin zen bezala, argindarrik sartu ez zelako.

Aita Lizarralde eta Kalegoienan jartzea erabakitzen bada Foru Aldundira eskatu behar da, eta ontzat emanez gero, Aldundiak materiala hornitzen du eta Udalak azpiegitura prestatu beharra dauka (Kalegoiengan prest dago).

Hala ere, zerbitzu honen balorazioa egin beharko da, ordutegien ordu estimatua bakarrik azaltzen baitu, eta kontuan hartuz Udalak ordutegi eguneratuak jartzen dituela, nahikoa ez ote den baloratu beharko da.

TOKIKOARI GALDEZKA Tokiko Gobernuarentzako galdera, kexu edo kezka bat baldin badaukazu, bidali kontzejupetik@oinati.net helbidera



kuber

Rehabilitaciones y Obras Kuber, S.L.



Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK



Irtenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SATE).

kuber@kuber.es Tfno: 943 73 35 73 www.kuber.es

oposiziotik

EAJren UDAL ZINEGOTZI
TALDE OSOAREN IZENEANADIERAZPEN
ASKATASUNA !!!

Berriro ere KONTZEJUPETIK erabili da EAJren udal jardunari aurka egiteko edo isilarazteko, "Lourdes Idoiaga Urkiak lapurtu egin zuen" izenburua zuen idazkiaren bidez. Gainera Manu Egoña aipatzen dute, hura ere lerro hauen bidez defendatzen dugu. **Eta ez diegu erantzungo** idatzi horretan jaurtitako astakeriei eta gezurrei, nahiz eta larriak diren.

Hala ere, **oraindik larriago** deritzogu, Udaleko BILDUREN goren arduradunek idatzi horren berri aurrez izanda, **hura publikatzeari bide eman eta baimentzeari**. Idazten dutenen "adierazpen askatasun" eskubidea aipatuz zurituko dute euren burua, baina horrekin, beste batzuen duintasuna errespetatzeko oinarritzko eskubidearen aurretik jarri dute kontsiderazio hori. **Batzuen "adierazpen askatasunak"** ezin ditu urratu beste batzuen oinarritzko eskubideak. Beraz, ez du balio esateak PERTSONAK direla euren jardunaren ardatz nagusia eta horren segidan, haietaz ahaztea nahiz subjektu politikoa izan. Ezin da hori onartu.

[Larriago deritzogu, Udaleko BILDUREN goren arduradunek idatzi horren berri aurrez izanda, hura publikatzeari bide eman eta baimentzeari.](#)

Aitzitik, aurreko legealdian, **guk defendatu egin genuen ANVren ordezkariak**: PPko zinegotziak Hirigintza Batzordetik baztertzea nahi izan zuenean; PPko zinegotziaren aurkako epaiketan ANVren defentsan jokatzeko onartu genuenean; edo eta EAJ 8. zinegotziaren kargu egin ez zenean, ANVri zegokiola suposatzen zena, hain juxtu legealdian zehar tirabirak ekidin nahian...**Harro gaude** egin genuena egin genuelako, **lehen lekuan PERTSONAK jarri genituelako**.

Gobernatzeko bi era oso ezberdinak dira, izan ere, gobernatzen duenak bere gain hartzen du, pertsonen alde eta pertsonentzat jarduteko erantzukizuna.

Guk ere defendatzen dugu "adierazpen askatasuna" baina edozein preziotan ez, ikasi egin behar baita bereizten, noiz batzuen eskubideek beste batzuen oinarritzko eskubideak zapaltzen dituzten. Eta azken gogoeta gisa, penagarria da hori udal aldizkari batean gertatzea, pertsona guztiekiko kode etikoa errespetatu beharko bailuke, besteak beste, guztien zergei esker ordaintzen delako.

gobernutik



Oier Irizar - Bildu

ESTATUAREKIN KONFRONTAZIOA
HERRI GISA

2013aren amaieran **bi inizatiba** ezagutu genituen: **Euskal Preso Politikoen Kolektiboak egindako urratsa** batetik; Estrasburgoko sententziaren ostean kaleratutako presoena bestetik; espainiar **Estatuaren erantzuna etorri zen ondotik**, erasoaldi berri bat, kasu honetan EPPKren bitartekari lanetan ari ziren **kideak atxilotuz** eta jarraian urtarilaren 11ko presoaren eskubideen aldeko **manifestazioa debekatzu**.

Egoera honen aurrean, **herri honek aurre egin zion estatuak prozesua zapuzteko egindako azken saiakerari**, erantzun guztiz zabala eta sakona emateko indarrak bilduz. Urtarrilaren 11n Bilboko kaleak izan ziren horren lekuko, manifestazio deialdiak azken hamarkadetakoko jendetzarik handiena erakarri zuelarik.

[Bide bakarra: indar metaketa eta guztiok batera. Zer nolako atxikimendu maila lortu duen jarduera bateratu honek, eta zer nolako ilusioa piztu duen, kontuan hartzekoa da.](#)

Deitzaileak izan ziren alderdi eta sindikatuez harago, manifestazioaren deialdiak **mota guztietako jendea bertaratu eta ilusionatzea lortu zuen**. Ideologiaren gainetik, debekuen aurrean egindako deialdi berriari baiezko masiboa eman zioten herritarrek, aurreikuspen guztiak apurtuz.

Herritarren sakoneko korrante horrek **mezu argi bat ekarri digu guztioi**: herri honen **gehiengoari elkarrekin batera urratsak egitea eskatuz**, elkarrekin batera behin betiko konponbideari heltzeko aldarrikatuz, soilik horrela gaingitu eta mugiarazi ahal izango dugulako espainiar estatuaren politika ankerra.

Urtarrilaren 25ean berriz, **erabakitze**ko eskubidearen aldeko **adierazpena** sinatu zuten **esparru eta kondizio askotariko ia 100 oñatiarrek** Sancti Spiritu Unibertsitatean herriko Gure Esku Dago lantaldeak antolatuta.

Oinarritzko hiru puntuetan egin zuten bat 100 herritar hauek: **Euskal Herria nazioa dela, erabakitze**ko eskubidea duela eta **erabakitzea euskal herritarrei dagokiela**.

Bi adibide: bata gatazkaren ondorioekin lotua; bestea, muinarekin edo erabakitze eskubidearekin. **Bide bakarra: indar metaketa eta guztiok batera**. Zer nolako atxikimendu maila lortu duen jarduera bateratu honek, eta zer nolako **ilusioa piztu** duen bi urrats hauek egin izanak kontutan hartzeko da. Horrela egiten dugu!

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 - OÑATI
Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitate**
publi@oinati.net



KRISI HONETAKO URTEBIDIA LEHENO EGOERARA BUELTAITIA IZANGO AL DA?

Krisis honen hasieratik, batzuen ustez, euren kartian finantza munduko pertsona jakintsu batzuk ere bai, emun dozkun soluzioak krisisan irtenbiderako, lehengo egoerara bueltaitia da eta ikusten denez ahalegin guztiak eitten dabitz bide hortan jarteko ekonomi mundua.

Nere ustez okerra da bide hortatik bakarrik saiaketia. Mundua aldaketan doa eta horrekin batera egoera ekonomikoa, herrialde berri batzuk sartzen dabitz eremu ekonomikan bai kontsumitzaile esparrua haundituz eta bai produktore arloan konpetentzia gehituz, eta herri honaik generalki eskulan kostu ekonomiko txikiagokuak dira, teknologi aldetik geruau eta hobeto dauz eta lehendik gatozen herrialdeei benetako konpetentzia eitten dozku.

Horreatik, eta ikusitta munduan globalizazio prozesu honekin zelako aldaketak datozen, nere ustez krisisan irteeria beste era batera planteau biharra daku. Alde batetik, sartuta gauzen kontsumismo karrera honi bihar dan mouko freno batzuk jarritz. Zenbat eta zenbat gauza ezertarako falta ez dozkunak erostenttu? Hurrengo egunetik baztertuta geaketan dianak?

Beste alde batetik, herri produktore mouan jarraiketia gura badu, pertsonen kapazidadiak gaur baino hobeto aprobeztatzen ikasi biharko du, bai enpresen eta bai instituzinen geginuan. Gaurko egunez kreatibitate kapazidade asko alperrik galtzen gabitz, bihar dan mouan partizipazio



Jose Luis Madinagoitia



Ezin geike onartu
gaztiak kanpoko
beste herrialde
batzutan euren onena
aportaitia, hemen
aukera falta dauelako

bideak ez erabiltteatik edota gazte pilla bat, kapazidade haundikuak, langabeziatik lan munduan sartu barik dauzelako.

Eta hau danau nola konpondu?

Gestino partizipazioa gehitu eta indartu bihar da lanerako era berririk probauaz, beste leku batzutan lortu daueina ikusi, probau eta ikasiz, bai enpresetan eta bai instituzinotan. Hau lortzeko zuzendaritzetatik eta gestino burutatik benetako borondate bat bihar da. Gai hontan ez dot uste azkenak gaienik, baina uste dot oindiok bide haundixa dakula ibiltteko.

Beste alde batetik, ideia barriak pentsau biharko du jende gaztia euren ikasketak bukatu ondoren hemen hasi daixen lanian eta euren ezagutzak baliatzen, kanporako bideak hartu barik. Ezin geike onartu gazte honaik kanpoko beste herrialde batzutan euren onena aportatzea,

hemen aukera falta bat dauelako. Heuren benetako biharra hemen daku.

Eta nola lortu mundu zabal hontan konpetitibuak izatia?

Ba, seguru asko, danok petrinia estututa, soldatetan desberdinttasunak gutxittuta, aberastasuna hobeto banatuta, eta ahaztu barik beste herrialde batzuk ere guk beste eskubide dakoila nazioarteko merkatuan sartzeko eta herrialde barriren konpetentzia goraka joango dala.

BANANDUAK, BANATZAILEAK ETA SEPARATISTAK

Bananduek esaten zaie aurretik lege batuta egon zirenei, nahiz eta eurretako asko, euren baitan ez ziren sekula batuta egon. Senar-emazte bananduei dibortziatuak esaten zaie, epaileak ezkontza zibila baliogabetzea lortzen dutenean.

Nazioen artean, adibidez, Txekia eta Eslovakia, banandutako herrialdeak, estatu bihurtzen dira. Beti egoten da banatzaile bat, nagusi edo dominatzaile dena, eta banaketa behartzen duena, adibidez: zapaltzaileak zapaltzaileekiko, aberatsak pobrearekiko... Batzuetan, oso gutxitan, ahulek aurpegia eman eta banatzea erabakitzen dute.

Gai hauen inguruko historia ez dugu gure interesen arabera berridatzi edo berrasmatu behar. Hala egin izan dute, ordea, hainbat historiagile ustelek. Errege Katoliko ERREKONKISTAZ hitz egiten digute; baina ze errekonkista? Ez da egia. Urte hartan, 1492, Espainia ez zegoen bat eginda gaur ulertzen dugun eran. Nafarroako erreinua konkistatua izan zen 1512-1522an, eta Gaztelako erreinuak, penintsulako erreinuak eta Kanariak suntsitu ondoren, Reino de las Españas bezala izendatu zuen bere burua. **Ez zen bat-egitea izan, inposaketa baizik.** 'Nafarroa eta Arabaren borondatezko bat-egiteak' irabazleen engainu eta gezurrak dira.

Nazionalismoak ez du zertan izan banatzailea eta baztertzatzailea; alderantziz, integratzailea izan behar du,



Fernando Mendiguren



Euskal nazionalistak
ez gara sekula
separatistak izango,
ezin baita banandu
identitateak batu
EZ duena

kulturena, hizkuntzena... Ez dugu imitatu behar gaztelar nazionalismoa, zeinek beraien sorterrria, identitatea, hizkuntza eta kulturari uko egiten dieten galiziar, kataluniar eta euskaldunak txalotu eta **español eredugarri** bezala jartzen dituen. Katalunia eta Euskal Herria bereiztu daitezke Espainiatik, eta penintsulako nahiz irltako gainerako herriein harremana mantentzen jarraitu, kultur arloan, gizarte mailan...

Nire iritzi apalean, gauza bat da nazionalismoa eta beste bat separatismoa. **Nazionalista da bere nazioa maite duena**, eta nekez izango da separatista, bere nazionalismoak bi nazionalitate batera edukitzea eragozten diolako. Euskalduna euskalduna da, eta ez espainiarra. Min egiten dit 'Estatu arrazoiak' edo 'Todo por la patria' bezalako argudioak erabiltzeak horrelako jardunak justifikatzeko. Fragak esan zuen: Ifni eta Sahara Albacete edo Valladolid bezain espainiarrak dira.

Kuba eta Mexiko ere espainiar probintziak izan ziren, eta Cadizeko Konstituzioan ('La Pepa', 1812) Espainiei buruz hitz egiten zen, itsasoz bestaldekoaz eta penintsullarraz. Non daude batzuk eta besteak?

Euskal nazionalistak izan gaitezke: independentistak, soberanistak, autonomistak edo erregionalistak, baina inoiz ez **separatistak**, ezin baita banandu identitateak batu EZ duena. Olio eta ura...

BIDEGURUTZEAK

Aurreko idatzian esaten genuen koo-peratibekin gertatutakoak aspaldi hone-tako eztabaida zabalenak sortuko zituela eta une egokia zela agian hausnarketa sakona egiteko. Kanpotik bizi baina interes handiarekin jarraitzen dugunok bizpahiru gauza azpi-marratuko genituzke honen inguruan.

Eztabaida hau ez da bakarrik lantegi jakin bateri dagokion gaia, hor aterako diren ondorioak segur aski eragina izango dute inguruko kooperatibetan, beste kooperatibetan, munduko kooperatiba mugimenduan, ekonomia sozialaren eremuan eta lana eta ekonomia beste era batera ikusi eta ulertzen dutenengan.

Bigarren bat izango litzateke eztabaida beraren nondik norakoa. Sortu zirenetik kooperatibetan noizbehinka eman izan dira eztabaida korapilotsuak, baina 60 urte pasa ondoren, badirudi eredu bera osotasunean aztertzeke ordua heldu dela. Eta hemen, jakina, hainbat sakoneko gaiei erantzuna eman behar zaie: munduratzea, tamaina, kudeaketa eredu, kooperatibismoaren esanahia XXI. mendean, etab.



Sortu zirenetik kooperatibetan eman izan dira noizbehinka eztabaida korapilotsuak, baina eredu osotasunean aztertzeke garaia heldu da



Luis Guridi

Ez da gutxiago nork parte hartu behar duen eztabaida horretan. Lehendabizi, jakina, krisia pairatzen ari direnak eta taldeko kideak, beraien zuzendaritza erakundeak direla medio. Baita ere Unibertsitateak eta bereziki horretara bideratuta dauden erakundeak, Lanki esaterako. Baina komenigarria izango litzateke ekonomia sozialeko eta solidarioko beste erakunde eta beste unibertsitateko ikerlariak, eta gizarteak berak ere, gertutik jarraitzea.

Eta azkenez, erabakiak. Krisi ondorengo egunetako komunikabideei erreparatuz, badirudi badaudela azpi-korrante indartsuak merkatu globalizatuak eta teknologiak eskatutakoari hobeto erantzuteko asmoz, parte-hartze demokratikoak eskatzen dituen erritmoak eta pausuak gainditzearen alde egongo lira-tekeenak. Baina beste zenbaitek kontrakoa esango dute, krisiaren arrazoia koope-ratibismoaren baloreak eta portaerak bertan behera uztean dagoela eta berreskuratzaren beharra azpimarratuko dute. Eztabaida benetan garrantzitsua. Sorte on.

FRANKESTEIN HEZITZAILE

Guztiok ezagutzen dugu Frankensteinen istorioa. Doktoreak burua galtzen du eta bere nahira eta arabera moldatutako munstro beldur-garri bat sortzen du. Guztiok, ume ginenean, eta heldutan ere, izan diogu beldur munstro horri, edo munstro berari baino Frankenstein doktorearen helburu malefikoari, jainko izatera jolastera daraman akzio hori ulerti ezinik.

Baina "Philippe Merieuk" bere "Frankenstein hezitzaile" liburuan adierazten duen bezala, ez al dugu guk, helduok, batzuetan doktore honen jarrera gure haurrekiko? Gure gizartera, gure bizimodura moldatu nahi ditugu, gure erara hazten eta sortzen ditugu. Eta era berean, ez al gara gu beste Frankenstein batzuek sortutako "munstroak"? Inkontzienteki (eta batzuetan ez horren inkontzienteki) haurrak molde batean sartu eta horren mugen barruan hazten ditugu, pertsonak baino, proiektuak sortuz. Ahaztu egin dugu haurra ez dela bete beharreko poltsa bat, piztu beharreko sua baizik.



Ahaztu egiten dugu haurra ez dela bete beharreko poltsa bat, piztu beharreko sua baizik



Xabier Pascual

Guzti horrek, Francesco Tonucciren "Haurren hiria" proposamenera narama. Helduok haurra izatea zer den ahaztu dugu, ume gineneko perspektiba galdu dugu. Egungo gizartea helduok adostua helduontzat sortu dugu: bizimodu azkarra, konpetentzia, produktibitatea, gizarte estatus konkretu batekiko apologia, herri eta hirietako etengabeko trafikoa, kaleetako segurtasun eza, umeentzako prestatutako jolas parkeak (etengabeko ekintza eta mugimendu errepikatuak bermatzen dituztenak, irudimena gai mikroskopiko bat bihurtuz)... Gure haurrak etorkizunerako prestatzen ditugu, euren oraina alde batera utziz, beraientzat ezinbestekoa dena ahaztuz: jolasa. Umeak intelektualki gure azpitik dauden izakitzat hartzen ditugu, beraien iritzia, proposamenak, beraien nahiak alboratuz.

Ez legoke gaizki esateko dutena entzutea eta kontuan hartzea. Agian horrela, guztiok atzera eginez eta berriz ere haur bihurtuz, helduon mundu zoro hau toki hobeago batean bihurtuko genuke.

HARITZA

- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoa
- Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 96

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

Traktorea eta desbroze lanetarako besoa erosi ditu Udalak

Udalak 80 mila euro inbertitu ditu traktore eta desbroze lanetarako besa bana erosten. Traktorea, *Massey Ferguson Essencial* markakoa, Seikin S.L. enpresari erosi dio 42 mila eurotan (BEZ kanpo).

Lan ezberdinak egiteko erabili ahal izango da traktorea; negu partean, elurra kentzeko makina bezala, aurrealdean pala edo laban edo kutxilak jarrita. Auzo-bideak garbitzeko erabiliko da, batez ere.

Bestalde, urtean zehar bide bazterretako belar eta sastrakak garbitzeko erabiliko da. Horretarako, traktoreari lotuko zaion besa desbro-



Elur egunetan bideak garbitzeko erabiliko da traktorea

zatzailea erosi dio udalak Fernando Maiztegiri 26,2 mila eurotan (BEZ kanpo).

Orain arte, Udalak kanpoko enpresa bat kontratatu izan du desbroze lanak egiteko eta elur-kentze lanetan laguntzeko, eta bataz beste, 25 mila euro gastatu izan ditu urtean. Beraz, egindako inbertsioa hiru bat urteren buruan amortizatuko dela uste dute udal zerbitzuetako arduradunek; gainera, bide bazterrak garbitzeko lanak sarriago egiteko aukera emango du. Orain arte urtean behin bakarrik egin izan dira.

ELURRARI AURRE EGITEKO PREST

Aurtengo neguan, orain arte, elurrak ez digu aparteko buruhausterik eman, baina udaleko Zerbitzu departamentuak prest ditu, badaezpada, elurte eta izozteei aurre egiteko baliabideak. Alde batetik, 50 tona gatz ditu biltegian, erabiltzeko gertu. Bestalde, ibilgailuei dagokienez, bi *land-rover* eta erosi berri duen traktorea dauzka udalak herriguneko eta auzoetako bideak garbitzeko. Gainera, kale garbiketa zerbitzuaz arduratzen den FCC enpresarekin hitzartutakoaren arabera, laister elur-kentze lanetan erabili ahal izango den pick-up erako ibilgailu bat erosiko du FCCk Oñatirako. Eta beharrezkoa bada, beste traktoreista baten zerbitzua ere kontratatuko du Udalak.

Horiez gain, espaloiak eta oinezkoen bideak garbitzeko motordun lau esku-makina, eta gatza botatzeko bost orga edo karro ere baditu.



Elurte handiko egunetan oinezkoen bideak garbitzeko herritarren arteko auzolana sustatu nahi du Udalak

AUZOLANA SUSTATU

Baliabide materialez gain, Udalak herritarren arteko auzolana sustatzeko asmoa du, iaz hasitako bideari jarraituz. Iaz, Udalak egindako deialdiari erantzunez, 40 herritarrek eman zuten izena elur egunetan bideak garbitzen laguntzeko. Azken batean, Udalaren baliabideak mugatuak dira, eta elurte handiko egunetan ezinezkoa da alde guztietara eta nahi bezain azkar iristea. Horregatik, oso garrantzitsua da herritar bolondresez osatutako brigadak egotea, herriguneko espaloiak eta oinezkoen bide nagusiak garbitzen laguntzeko.

Brigada edo lantalde hauetan parte hartzeko prest dauden herritarrek partehartzea@oinati.net helbidean eman dezakete izena, harremanetarako telefonoa utziz. Denek aseguroa izango dute.



- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoen konponketak

Jose Moyua kalea 16, behea • Tel./Fax: 943 78 23 10
Mug. 615 74 94 94 • 20560 OÑATI



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

MUGIKORTASUN PLANA azken txanpan sartu da

INTRA enpresak bere ekintza plana aurkeztu du. Herritarrok iritzia emateko unea da orain.

Udala, INTRA enpresa kataluniarraren laguntzarekin egiten ari den Mugikortasun Iraunkorrerako Plana azken txanpan sartu da. Analisia eta diagnostikoa egin ondoren, ekintza plana proposatu du INTRAK, udal arduradunen eta herritarren artean eztabaidatzeko.

Besteak beste, oinezkoentzako guneak areagotu (Txaketua ingurua, Bakardadeko Ama, Atzeko kale...) eta herriguneko arteria nagusia gurutzatzen duen pasoko trafikoa saihesteko neurriak proposatzen ditu. Oinezkoen mugikortasuna areagotzeko eskola-ibilbide seguruak definitu eta seinalizatzea; bizikleta sarea 4,7 km.-tan zabaltzea (%70 bide mistoa izango da, motordunekin partekatuzko); Oñati eta San Prudentzio arteko autobus zerbitzua herrigunetik bideratzea, industrialdeei zerbitzua emanez, eta Olabartaraino luzatzea; Bidebarrietan errotazioko aparkaleku plazak egokitzea; lurpeko parkinetarako seinalizazioa hobetu eta Kalegoienako doakotasuna luzatzea... Neurrietako batzuk baino ez dira.

Orain neurri horien gainera gure iritzia emateko unea da. Beraz, Udalak dei egiten die herritarrei Mugikortasun Foroan parte hartzera. Otsailaren 10ean da hurrengoa. Irekia da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.



INTRAK proposatzen dituen neurrien hiru adibide: Txaketuako bidegurutzeta eta inguruak oinbideratzea; Ramon Irizar kaletik Atzeko Kalerako sarbidea mugatzea; Euskadi Etoribidea norabide bakarrekoo izatea, banandutako bidegorri batekin.



- Ramon Irizar Kalea



Summer camps

Udalekuak

Udaleku irekiak

Colonias

Colonias abiertas



Ordutegia: goizez 9:00etatik 13:00etara.

Iraupena: 2 - 4 aste.

Datak: ekainaren 30tik uztailaren 24ra.

Jarduerak: eskulan tailerrak, kirolak, festak eta jokoak.



mondragonLingua

OÑATI

Motxon, 7

943 71 60 00

mlainati@mondragonlingua.com

» informazioa eskatu

ATEZ ATEKOA: ZALANTZAK ARGITZEN

Bidali zure zalantza edo galdera helbide honetara: kontzejupetik@oinati.net

►ONTZI ARINAK ATERATZEKO PLASTIKOZKO EDOZEIN POLTSA ERABILI AHAL DA

Udalak iaz banatutako poltsa horiak amaitutakoan, plastikozko beste edozein poltsa erabili ahal izango da ontzi arinak ateratzeko.



►KUBOAK ATERA ETA BATZEKO ORDUTEGIA ERRESPETATZEA ESKATZEN DA

Gogoratu, ontziak zintzilikatze ordutegia 18:00etatik 23:00etara dela. Ontziak jasotzeko ordutegi zehatzik ez da jarri, baina hurrengo goiz-eguerdirako jasotzen saiatzea eskatzen da.

►GARBIGUNE IBILTARIA HAMABOSTERO

Etxean sortzen diren hondakin arriskutsuak (aerosolak, bonbilak, pilak, termometroak, motore olioak, bateriak, pinturak, erradiografiak...) batzeko Mankomunitatearen Garbigune Ibiltari zerbitzua hamabostero egongo da Oñatin, azokaren atzealdeko biribilgunean (kiroldegi aldera), goizeko 10:30etatik iluntzeko 21:00ak arte. Otsailaren 6an eta 20an egongo da.



Otsailaren
6an eta
20an
etorriko da
GARBIGUNE
IBILTARIA
Oñatira

Larrialdi guneak erabiltzeko telefono bidezko sarbidea egokitu du Udalak



[Otsailaren
erdian
sartuko da
indarrean
telefono
bidezko
sistema
berria](#)

Orain arte, ETEO edo Garagaltzako larrialdi guneak erabili nahi zuenak udaltzaingoa eskatu behar zuen giltza. Orain berriz, udaltzaingora joan barik, telefonoz deituta lortu ahal izango dugu larrialdi gunera sartzeko gako edo klabea. Horretarako 943252288 telefono zenbakira deitu beharko da, eta hizkuntza aukeratu ondoren, gure etxeko kubo edo ontziko pegatinaran agertzen den goiko zenbakia eman beharko dugu. Ondoren, erantzun-gailuak zenbaki edo kode bat emango digu larrialdi gunera sartu ahal izateko. Egunotan probak egiten ari dira, eta otsailaren erdi aldera sartuko da indarrean telefono bidezko sistema.



943252288

zenbakira deitu eta
gure etxeko ontziko
pegatinaran agertzen den
goiko zenbakia eman
beharko dugu sarrera-
kodea eskuratzeko

Haizeak kuborik ez eramateko neurriak hartu ditu Udalak

Pasa den abenduko haizete egunetan arazo ugari sortu ziren hondakinak ateratzeko ontziekin, haize bolada indartsuen ondorioz kubo asko lurrera erorita eta apurtuta agertu baitziren. Halakorik berriro errepika ez dadin, soluzio edo irtenbide ezberdinak aztertu ditu udalak, eta, azkenean, esekitokietan gomak jartzea erabaki du, argazkian ikusten den moduan.



Herritarrentzat eta langileentzat erabilerraza izango den soluzio bat hautatu du Udalak. Hainbat egunez probatu dute San Martin auzunean, eta badirudi eraginkorra dela. Beraz, poliki poliki, heri osoko esekitoki guztietan jarriko dute, haize-leku diren gunetatik (San Martin, Ugarkalde...) hasita.

Hondakin bilketako ordenantza onartu du Mankomunitateak

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen bilketa arautzeko ordenantza onartu du, zerbitzuaren arduradun eta onuradun direnen eskubide, eginbehar eta betebeharrak zehatzuz. Ordenantzaren arabera, eskualdeko etxeetan sortutako hondakinak Mankomunitatearen esku utzi behar dira derrigorrez, honek balioa eman diezaien, edo bestela eliminatu.

Bilketa zerbitzu ezberdinen funtzionamendua arautzen du ordenantzak, eta bertan ezarritakoa hausten dutenei ezarri ahal izango zaizkien isunak ere ezartzen ditu. Hiru arau-hauste mota daude: arinak, larriak eta oso larriak, eta horren arabera, 60 eta 45.000 euro arteko isunak jarri ahal izango dira.




Bisita itzazu gure instalazio berriak

HELBIDE BERRIA

URRATS
Podologia Zentrua

Arantzazu kalea, 19-A
Tel.: 943 533 637
podourratsoinati@gmail.com
www.urratspodologia.com



SUMMER IN THE USA

Pelikuletan bezala!

PREZIOA
Ikasle berriak: 3.895€
Ikasle beteranoak: 3.695€

Izena emateko,
www.summerintheusa.com web orrian sartu eta "Inscripción 2014"-an klikatu

INFORMAZIO GEHIAGO: 943-22-49-32
EMAILA: office@summerintheusa.com
BULEGOA: Vitoria-Gasteiz kalea, 18 behe - Donostia

EZAUGARRIAK

Summer In The USA-k 14-18 urte bitarteko gazteei euren ingelesa hobetzeko aukera ematen die, udako hila batean zehar amerikar familia batekin, AEB-etan bizi diren bitartean. Ikasleak hiru aste familia batean eta astebete gazteentzako kanpamentu batean igaroko ditu. Egonaldia, AEB-etako ipar-mendebaldean Washington eta Oregonen izango da.

PROGRAMAREN BARNE HAU DAGO

- Joan etorriko hegaldia
- Egonaldia familia batean
- Astebete kanpamentu amerikar batean
- Irteera eta jarduera desberdinak
- Ikasle bakoitzarendako tratu pertsonalizatua
- Bidai eta egonaldian lagunduko duten begiraleak
- Koordinatzaile amerikar eta euskaldun baten gainbegiratzea
- Medikua, istripu eta erantzunkizun aseguruua
- Bidaia baino lehenagoko informazio bilera
- Ingeles ekintza desberdinak urtean zehar

DATAK

2014-ko UDA: Uztailean

Epe mugatua!!

SUMMER IN THE USA

LEARNING ENGLISH ► HAVING FUN ► MAKING FRIENDS ► BECOMING FAMILY

Ludoteka zerbitzua martxan da berriro Txatxilipurdiren eskutik

Zerbitzuan egin beharreko egokitzapenak egin ostean, 'Txaloka' ludotekak ateak zabaldu ditu berriz ere, haize berrituta. Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak kudeatuko du aurrerantzean zerbitzua, Udalak egindako deialdi publikoa irabazi ostean. Hezitzaile lanetan Leire Zumalde eta Oihana Ugarte oñatiarrak ariko dira, Ainara Kortabarria Txatxilipurdiko koordinatzailearen laguntzarekin.

Funtzionamenduari dagokionez, ludotekak herrian presentzia handiagoa izango duela adierazi dute arduradun berriek; Txalokako espazio fisikora mugatu barik, herriko kale eta parkeetara irteteko asmoa adierazi du Kortabarriak.

Bestalde, ludotekan burutuko den jarduera-programa haurrek erabakiko dute. "Haurren adierazpen eta partehartze eskubidea errespetatu nahi dugu; beraz, asanbladak egingo ditugu eta elkarlanean sortuko ditugu jolas, irteera, eskulan, lehiaketa, antzerki eta beste hamaika kontu" azaldu du Txatxilipurdiko koordinatzaileak. Gurasoen partehartzea eta inplikazioa ere sustatuko dute ludotekako ekintzetan.

Sartu-irtena libre

Ludoteka zerbitzua astelehenetik ostiralera dago zabalik, arratsalde, 17:00etatik 20:00ak arte, eta sarrera-irteera orduak libre izango dira; hau da, haurrak nahi duten orduan sartu eta atera ahal izango dira bertatik.

Ludoteka zerbitzuak izan duen beste aldaketa inportante bat prezioan dago, bertako kuota %70 merketu baitu Udalak urte



Noticias de Gipuzkoa

Ludoteka eta Bertakotze zerbitzuetako hezitzaileak, Ainara Kortabarria, Txatxilipurdiko ordezkaria, eta Nerea Zubia Hezkuntza zinegotziarekin

berriarekin batera. Aurrerantzean, 60€ balioko du urte osoko kuota (orain arte 200€ balio zuen); bigarren seme-alabarenak 50€, eta hirugarrenarenak 40€.

Ludoteka zerbitzua 3-9 urte arteko haurrei zuzenduta dago. Jolasaren bidez, autonomia, dibertsitatea, emozioak, sormena eta elkarbizitza bezalako baloreak lantzen dituzte bertan, giro euskaldun eta atseginean betiere.

'Bertakotze' programa

Ludoteka zerbitzua ez ezik, etorkinen seme-alabei zuzendutako hizkuntza errefortzurako 'Bertakotze' programa ere Txatxilipurdik kudeatuko du aurrerantzean, Ainhoa Erstarbe eta Xabier Pascual hezitzaileen ardurapean.

Abizenak euskalduntzeko dei egiten die Udalak herritarrei

Euskal abizenak euskarazko grafiara aldatzeko kanpaina jarri du abian UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Udalak ere bat egin du kanpainarekin, eta, beraz, dei egiten die herritarrei beren izenarekin koherentea izanik, abizenak euskal grafian jartzeko.



TRAMITE ERRAZA

Abizenak euskarazko grafiara aldatzea ez da batere zaila. Bake Epaitegira joan eta han emango dizuten eskaera-orria bete behar da. Eskariarekin batera agiri hauek eraman behar dira: nortasun agiriaren kopia, jaiotza-ziurtagiria (epaitegian eska daiteke), errolda-agiria eta, ezkondata bazaude edo seme-alabarik izanez gero, familia-liburuaren kopia. Hamasei urtetik gorako seme-alabak badituzu, hauen nortasun agiriaren kopia ere eraman behar da.

Euskaltzaindiaren webgunean (www.euskaltzaindia.net) abizena euskaraz nola idatzi behar den kontsulta daiteke.

Ur tarifak ezartzeko, etxean erroldatutako bizilagun kopurua ere hartuko da kontuan

Ur zerbitzuaren ordenantza aldatzea erabaki zuen udalbatzak urtarileko osoko bilkuran. Ur Kontsortzioak egindako proposamena aintzat hartuz, aurrerantzean etxebizitza bakoitzean erroldatuta dagoen bizilagun kopurua ere hartuko da kontuan, kontsumoaz gain. Bildu aldaketaren alde agertu zen, modu horretan kalkulaturako tarifak arrazionalagoak eta bidezkoagoak izango direlako.

Hona, tarifakazio sistema berriak izango duen eraginaren adibide bi: pertsona bakarra bizi den etxe batean 25m³-ko kontsumoa badu %4,2 (1,81€) garestituko zaio hiru hileko faktura. Aldiz, sei bizilaguneko etxe batean kontsumoa 60m³-koa bada, %4 (3,52€) gutxituko zaio. Inor erroldatu gabeko etxebizitzetara goiko tramoko prezioa aplikatuko zaie.

EAJK aldaketaren aurka bozkatu zuen. Lourdes Idoiagak azaldu zuen ados daudela tarifakazio sistema berriaren helburuarekin (uraren kontsumo arduratsua, razionala eta neurtua), baina ez gaia planteatzeko moduarekin. Jeltzaleen ustez aldaketa honek Oñatiko familia tipo bakoitzaren fakturan izango duen eragina aztertu behar zen, eta ez da egin.

Alkateak erantzun zion ez dutela halako azterketa sakona egin beharra ikusten, eragina ez delako hainbestekoa izango, eta EAJK berak ere izan duela azterketa hori eskatzeko aukera.

Sexu aholkularitza zerbitzua

GAZTEENTZAT

► 14-18 urteko gazteei zuzendutako sexu aholkularitza zerbitzua jarriko du Udalak ► Doakoa izango da eta ostiral arratsaldetan emango da Gaztelekuan.


Sexualitatearen gaiak tabu izaten jarraitzen du oraindik ere gure gizartean, eta, ondorioz, gazte-nerabe asko erreferentzia argirik gabe aurkitzen dira beraien zalantzak eta arazoak kontsultatu eta konpartitzeko orduan. Gainera, telebista, internet eta sare sozialetatik jasotzen duten informazioa, askotan, rigore zientifikorik gabea izaten da, aurreiritzi eta genero-estereotipo zaharretan oinarritua. Eta horrek guztiak eragin zuzena izaten du gazteen artean ematen diren jokabide arriskutsu eta tratu txarreko harremanetan.

Beraz, informazio falta edo hutsune horri erantzuteko asmoz, Udalak 14-18 urte arteko gazteei zuzendutako Sexologia Aholkularitza eta Informazio Zerbitzua jarriko du abian martxotik aurrera. Doako zerbitzua izango da, eta ostiral arratsaldetan emango da Gaztelekuan.

Udaleko Hezkuntza, Gazteria, Prebentzio eta Berdintasun sailak batzen dituen 'Aisialdi Hezitzaile' sailak koordinatuko du zerbitzua, eta sexu hezkuntzan aditua den 'Desirak' enpresako profesionalak egingo dute lan zuzenean gazteekin.

KONTSULTAK EGITEKO AUKERA EZBERDINAK

'Desirak' zerbitzuko profesionalak ostiral arratsaldetan etorriko dira Gaztelekura, eta aurrez-aurreko kontsultak egiteko aukera egongo da. Horretarako, bulego bat egokituko da bertan, halako kontsultak egiteko behar den intimitatea bermatzeko. Gainera, gizonezko eta emakumezko bana egongo dira



'Desirak' enpresako adituek emango dute zerbitzua. Aukera ezberdinak egongo dira kontsultak egiteko: aurrez aurre, telefonoz, emailez, sare sozialen bidez...

zerbitzua ematen, eta kontsulta egitera doazen gazteei aukera emango zaie bata edo bestea aukeratzeko, eroso egon daitezen. Banaka, bikoteka edo lagun taldeka egin ahal izango dira kontsultak.

Horrez gain, telefonoz, emailez eta sare sozialen bidez (txat, messenger, skype...) ere egin ahal izango dira kontsultak. Bide hauetatik iristen diren kontsultei 24-48 orduetan, gehienez, erantzungo diete Desirak-eko adituek, urteko 365 egunetan.

Gainera, sare sozialen bidez sexualitatea eta berdintasunarekin lotutako gaien inguruko eztabaida foroak antolatuko ditu Desirak-ek, eta hori ere informazio iturri inportantea izango da gazteen iritziak, kezak eta

beharrak ezagutzeko.

AKTIBITATE OSAGARRIAK

Aholkularitza zerbitzua emateaz gain, tarteka, sexualitateari buruzko aktibitate eta tailer osagarriak antolatuko ditu Desirak-ek, eta preserbatiboak ere eskuratuko dizkiete hala eskatzen duten gazteei, aukera ona izaten baita hori, zuzen eta egoki informatu eta aholkatzeko, koito edo sarketa harremanak izan ditzaketen gazteei.

Sexologia aholkularitza zerbitzua udaleko Berdintasun eta Gazteria teknikariek koordinatuko dute, eta asmoa da herriko ikastetxeekin, osasun zentroarekin eta udal Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean aritzea.

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA | TEL/ FAXA: 943 78 14 59
20560 OÑATI (GIPUZKOA) | limabar@euskaltel.net

www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

■ **ZURIÑE GALARZA / LAN ORIENTAZIO ZERBITZUA**



Gaurko lan merkatuak kualifikazioa eskatzen du; ezinbestekoa da formazioa eta konpetentziak garatzea

Urte berriarekin batera, lana bilatzen laguntzeko orientazio zerbitzua jarri du abian Udalak, Mankomunitatearen bitartez. Bertako teknikari Zuriñe Galarza astean birritan etortzen da Oñatira, lan bila ari diren herritarrei laguntzeko asmoz. Jende askok eskatu du laguntza eta, dagoeneko, martxorako txandak ematen ari dira



Oso garrantzitsua da pertsonak bere burua ezagutzea eta noruntz jo nahi duen argitzea; guk lagundu egingo diogu helburu horretara iristen

ORIENTAZIO ZERBITZUA

Oñatin jaso nahi dutenek txanda eskatu behar dute 943793090 (Mankomunitatea) edo 943037700 (Udal Enplegu saila) telefonora deituta

Nori zuzenduta dago lan orientazio zerbitzua? Orokorra da zerbitzua. Batez ere lan bila ari diren langabetuak etortzen dira, baina lanean ari den pertsona bat ere etor daiteke, bere perfila hobetu edo beste lanen bat aurkitzeko laguntza nahi badu.

Urtarrilean hasi zinen zerbitzua ematen Oñatin. Nolako erantzuna izan du?

Erantzun handia izan du. Hasieran, Oñatira astean behin etortzen hasi nintzen, baina eskari handia zegoela ikusita, astean bi egunetan etorzen hasi naiz. Hala ere, otsaileko txanda guztiak emanda ditugu jada, eta martxorako ematen ari gara.

Dena den, Oñatiko txandari begira egon gabe, nahi duenak Arrasateko bulegoan ere eska dezake txanda.

Profil ezberdineko (adina, formazioa, lan-esperientzia) duen jendea etorriko zaizu.

Bai, noski; bakoitzaren interes eta beharren arabera informazioa eta zerbitzua ematen ahalegintzen gara. Inportanteena izaten da, lehenengo eta behin, pertsona kokatzea eta zer egin nahi lukeen edo nondik nora jo nahi

duen argitzea. Askok esaten digute, eta ulergarria da, edozein gauzatan lan egiteko prest daudela; baina, jakina, edozein gauzatan lan egite hori gero eta zailagoa da, ez badaukazu gutxieneko formazio bat.

Guk ez diogu esaten jendeari zer egin behar duen. Pertsona bakoitzak jakin behar du noruntz jo nahi duen, eta guk lagundu egingo diogu helburu horretara iristen.

Zertan laguntzen diozue, edo zer ikasiko du zerbitzu honetara datorrenak?

Aurrena, esan bezala, zer egin nahi duen argitzen saiatzen gara. Oinarritzkoa dirudi, baina oso garrantzitsua da. Hori argitu ondoren, berak markatutako helburu horretara iristeko dauden aukera eta baliabideak aztertzen ditugu (formazioa eta trebakuntzarako aukerak, lan-aukerak aurkitzeko baliabideak...).

Hortik aurrera, lana bilatzeko erreminta praktikoak ere lantzen ditugu: curriculumak eta aurkezpen gutunak idazten, lan-elkarriketak prestatzen... Baina hori azken pausoa izaten da; aurretik oso garrantzitsua da zer egin nahi dugun argi izatea.



ZURICH

M^e del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...






DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Zer detektatu duzue orain arteko elkarriketetan?

Ikusten ari gara jende asko dagoela kualifikazio maila oso bajuarekin. Eta garbi eduki behar da, kualifikazio gutxiko lanak desagertzen ari direla; gaurko merkatuak kualifikazioa eskatzen du eta, beraz, ezinbestekoa da formazioa eta konpetentziak (pertsonalak eta profesio-nalak) garatzea. Gaur ez goaz inora formazio barik. Ikastaro bat egiteak ez du bermatzen lana berehala aurkituko duzula, baina zure enplegarritasunerako aukerak zabalduko dizkizu.

Zein sentsazioarekin ateratzen da jendea?

Batzuk indartuta, gauzak argitzea lortzen dutelako; beste batzuk frustratuta, hemendik lan batekin irtengo zirela uste zutelako. Baina frustrazio puntu bat ona da, baita ere, bide horretatik inora ez goazela ikustarazten badigu.

Ze aholku ematen diozu lan bila dabilenari?

Bere burua ezagutzea, jakiteko zer nahi duen, eta konstantzia, lana bilatzeko prozesuan emaitzak ez direlako berehalakoak izaten.

Bestalde, gogoratu nahi nuke Mankomunitateak Arrasaten duen Enplegu Zentroan (Nafarroa Etorbidea, 17) eguneratutako lan informazioa jartzen dugula: lan eskaintzak, formakuntza programak, lan deialdi publikoak, praktika eta beka deialdiak, atzerriko lan aukerak, lan bilaketa online...

Edozein herritar joan daiteke bertara, aurrez txanda hartu beharrik gabe.

► %8,90eko langabezia tasa Oñatin

Eskura izan ditugun azken datuen arabera, %8,90eko langabezia tasa zeukan Oñatik pasa den abendu bukaeran. Zenbaki errealetan jarrita, 467 herritar zeuden izena emanda Lanbiden; 238 emakumezko eta 229 gizonezko. Euskadiko langabezia tasarekin (%15,76) alderatuz, egoera hobean dago Oñati, baina ezin dugu ahaztu, krisia hasi aurretik, 2008ko irailean %4,27an zegoela gure herriko langabezia indizea. Hortik aurrera gora egin zuen, eta azken bi urte hauetan %8 eta 9 artean dabil; iazko otsailean jo zuen goia, %10,16ko tasarekin.

Lan bila dauden 467 herritarren profilei begiratuz, azpimarratzeko eta kezkatzeko moduko datua da langabetuen adina: 45 urtetik gorakoak %45 dira. Formazioarena da kontuan hartzeko beste datu bat: lanik gabe dauden %62k oinarritzko hezkuntza baino ez dute.

► Enpresa berriak sortzeko Udalaren laguntzak

Lan munduan trebatzeko antolatu ohi dituen formazio ikastaroez gain, Udalak laguntza programa berezia dauka enpresa berriak sortu nahi dituzten herritarrei zuzenduta. Batetik, enpresa ideia lantzeko aholkularitza teknika eskaintzen du: enpresaren bideragarritasuna egin, eta erakunde ezbedinetatik jaso daitezkeen laguntzen inguruko informazioa eta tramitazioan laguntzen du.

Bestetik, aktibitatea martxan jartzeko tamaina ezberdineko lokalak eta bulegoak alokatzen ditu Zubillagako Olaburu zentroan, baldintza eta prezio oso egokietan. Eta, azkenik, laguntza ekonomikoa ere ematen du, enpresa ideiarren bideragarritasun azterlana burutzeagatik (300-900 euro), aktibitatearen arabera, eta sortutako lanpostu bakoitzagatik 1.000 euro (3.000 euro lehen sektorekoa bada).

Laguntza hauen inguruko informazio gehiago udal Enplegu zerbitzuan (Bidebarrieta 12 - Behea / 943037700 / enplegua@oinati.net).

► Mankomunitatearen Enplegu Plana

Debagoieneko mankomunitateak 2014ko aurrekontuak onartu berri ditu, eta 1,5 milioi euro bideratuko ditu ekonomia eta enplegua sustatzera. Ildo horretan, eskualdeko 240 gazte ekintzailetasunean trebatzeko saioak antolatuko ditu 'Agora' proiektuaren barruan, eskualdeko enpresa eta profesionalen elkarlanean.

Ildo berean, 'Berrikuntza Blai' izeneko proiektua Mondragon Unibertsitateko azken ikasturteko ikasleei zuzenduta egongo da, hauek ekintzailetasunean trebatzeko asmoz.

Epe motzean autoenplegu proiektu bat martxan jarri nahi dutenei zuzendutako formazio tailerrak ere antolatuko ditu, 'Ekintzaile trebea' eta 'Ni ekintzaile' programaren bidez.

Bestalde, 'Atzerirratzen' programaren bidez, sekula inportatu ez duten edo esperientzia gutxi duten enpresa txiki eta ertainei nazioarтератze prozesuan hasten eta sendotzen lagunduko die, dagoeneko atzerriko merkatuetan presentzia duten eskualdeko enpresen eskutik.

Enplegu eta negozio aukera berriak sortu asmoz, elektrizitatea eta energia mota berrien inguruan trebatzeko ikastaroa ('Energiaren oinarriak') antolatuko du. Ildo berean, automozio sektoreak eskualdean duen pisua kontuan hartuz, arlo honetako aktibitate, produktu eta aukera berriak identifikatzea helburu duen 'Ibilgailu' egitasmoa jarriko du abian, ikerketa sustatuz eta sektoreko eragileen arteko elkarlana bultzatuz.

Ildo berean, ibilgailu hibrido eta elektrikoen arloan, hotzeko estampazioan eta euskal janarai lasterraren arloan ikertu eta aukera berriak sortzera zuzendutako programak antolatuko ditu.

Eskualdeko merkataritza eta zerbitzuak sendotzeko asmoz, erosketa-bonoak aterako ditu %20ko deskontuarekin herritarrentzat.

**ARANBURU
ALTZARIAK**
 Kale Zaharra, 21
 Kale Barria, 11
 Lizaur A., 7
 OÑATI
 Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorentzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
 email/twitter: estetika.distira@gmail.com

enpresa ekimenak

Mail Boxes Etc.

bidalketak, bulegoko materiala, diseinu grafikoa enkuadernazioak, fax eta burofax zerbitzua...

Bidalketa zerbitzuetan mundu mailan liderra den MAIL BOXES ETC. enpresaren frankizia zabaldu dute Idoia Aierbek eta Garikoitz Bañosek. Paketeria zerbitzuaz gain, bulegoko materiala eta komunikazio grafikoarekin lotutako beste hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte.

Nola animatu zarete zerbitzu hau zabaltera ?

Aspalditxo ari ginen negozio-
ren bat jartzeko gogoz, eta aukera asko aztertu ondoren, MAIL BOXESen aukera sortu zen. Oso zerbitzu ona ematen duen enpresa bat dela ikusi dugu, eta, gainera, Oñatin era honetako zerbitzu bat falta zela ikusita, aurrera egitea erabaki genuen. Hiruzpalau hilabetez MAIL BOXESeko beste denda batzuetan egon gara ofizioa ikasten, eta uste dugu, zerbitzu ona emanaz gero, aurrera irteteko modua badagoela.

Paketeria edo bidalketa zerbitzuan espezializatutako enpresa da Mail Boxes, ezta?

Bai, horixe da gure zerbitzu nagusia. Batetik, enpresei zuzendutako zerbitzua da. Edozein gauza bidaltzeko prestatuta gaude: dokumentu bat, pakete bat, makina bat edo palet bat. Banaketa arloan mundu mailan liderrak diren enpresekin egiten dugu lan eta, beraz, garrantia osoa eskaintzen diegu enpresei. Denbora, ardurak eta dirua aurrezten laguntzen diegu.

Enpresei ez ezik, herritar partikularrei zuzendutako zerbitzua ere bada; hau da, edozein herritarrek munduko edozein lekutara bidali nahi duen paketea ere bidaltzen dugu. Prezioa eta, batez ere,



MAIL BOXES ETC.

Bidalketa zerbitzua

- Bidalketak mundu osora
- Enkuadernazioak
- Fotokopiak inportazioak
- Enbalajerako materiala eta zerbitzua
- Mikrologistika zerbitzua

Diseinua eta inprimaketa

- Formato handiko inprimaketak; offset eta digitalak
- Diseinu grafikoa
- Web orrien diseinua

Beste zerbitzuak

- Postontzi pribatuak
- Burofax zerbitzua
- Bulegorako materiala
- Enkuadernazioak
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Etab., Etab., Etab.,



Lazarraga kalea, 1 / 943 56 07 08 /
mbe309@mbe.es / www.mbe.es



kalitatezko zerbitzua garrantzitzen dugu. *Online* salmenta egitera dedikatzen direnentzetik prezio bereziak ditugu.

Bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituzue, ezta?

Bai, Mail Boxes Etc. enpresak eskaintzen dituen guztiak. Alde batetik, bulegoko materiala saltzen dugu; fax eta burofax zerbitzua; diseinu grafikoko zerbitzuak (kartelak, enpresendako seiluak...); fotokopiak, tamaina handiko inprimaketak; enkuadernazio eta plasti-

fikazioak; enbalaketak...

Apartado edo postontzi pribatua edukitzeko aukera ere ematen dugu; hileroko kontratua egiteko aukerarekin.

Laguntzarik izan al duzue?

Bai, enpresak ekimenak sustatzeko Udal Enplegu sailak ematen duen laguntza tekniko eta ekonomikoa jaso dugu. Gainera, lanpostu bat gehiago ere sortu dugunez, horri dagokion laguntza ere jaso ahal izango dugu, urte batean eusten badiogu. ■

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

enpresa ekimenak

NKUBA

BIRZIKLAPEN

EKOLOGIKOA

Ruandakoak (Afrika) dira jatorriz Nkuba aita-semeak. Duela zortzi hilabete iritsi ziren Oñatira, eta traste zaharrak konpontzeko tailerra jarri dute martxan Zubillagan, Udalaren Olaburu Enplegu zentroan. Etxean zokoratuta ditugun era guztietako trasteak (altzariak, material informatikoa, elektratresnak, bizikletak, jostailuak, oinetakoak...) jaso edo erosten dituzte, konpondu ondoren saltzeko. Laister, lokal bat zabaltzeko asmoa dute Kale Zaharrean, konpondutako gauzak saltzeko.



Harremanetarako
688 220 764
698 238 689

Nolatan bururatu zaizue era honetako zerbitzu bat abian jartzea?

Askotan ikusten dira Oñatiko kaleetan traste zaharrak, zabor edukiontzien ondoan, eta nire baitan pentsatu izan dut: hartu ahalko banu eta Afrikara bidali! Hortik sortu zen ideia. Eta, kontua da, Afrikan bakarrik ez, hemen ere bererabil daitezkeela gauza asko, jende asko baitago aparatu berriak erosi ezin dituenen.

Udal Enplegu teknikariari aurkeztu nion proiektua eta ideia ona iruditu zitzaion. Gainera, Acesma eta Herman-soloña bezalako taldeen laguntza ere jaso dugu, eta poliki poliki aurrera egitea erabaki dugu.

Zein eratako trasteak konpontzen dituzue?

Denetik. Elektratresnak, informatikakoak, lanparak, altzariak, bizikletak... Erabiltzen ez dugun eta konpondu daitekeen edozein aparatu.

Halakoren bat etxean edukiz gero, jarri gurekin harremanetan; guk baloratu egingo dugu eta dagokiona ordainduko diogu. Helburua da gauzei probetxua ateratzea,



bota baino lehen; guk ez badugu erabiltzen, beste pertsona batek aprobetxu dezala. Zokoratuta ditugun traste edo aparatu horiei bigarren aukera bat ematea da helburua. Beraz, animatu dadila jendea; ekar ditzatela hona traste zaharrak, edo,

bestela, geu joango gara bila. Xahuketa edo derrotxerik gabeko mundua esaten diogu guk.

Laister, lokal bat zabalduko duzue bigarren eskuko gauzak saltzeko, ezta?

Bai, dena ondo badoa, mar-txoan zabaldu nahi dugu Kale

Zaharreko 52 zenbakian.

Laguntzarik izan al duzue proiektua abian jartzeko?

Bai, udal Enplegu teknikariak aholkatu gaitu eta, gainera, Udalak Olaburu zentroko lokal bat alokatu digu; laguntza inportantea da hori guretzat.

XXI. MENDEKO GALTZADA

» Antxiñako
Leintz Bidia
berritzen
ari dira
Garagaltzan
auzolanean



“**G**arai bateko oñatiarrak ganorazko bide-sistema modutu euen, urte askotako lanaren puruz, inguruko herrixetara ailegaitteko (Legazpi, Antzuola, Bergara, Mondrague, Leintz eta Araba aldera), edota herri barruko auzuen arteko fan-etorrixak egitteko. Era askotakuak izaten ziran bideok: batzuk zaldiz tiratutako karruak pasaitteko modukuak (kamiñuak eta erregebidiak); idi eta behixak karriaitten zittuain burdixentzakuak beste batzuk (burdibidiak); mando, zaldi eta astuak ibiltteko hurrenguak (mandabidiak); eta oiñezkuentzako bakarrik ziran oinbide eta sendak be bai. (...)”

Tamalez, kaltzada-zati, burdibide eta bestelako bide zahar asko hondatu, desegin edo, kasurik onenian, porlandu egin dira azkenengo 10-12 urtietan. (...) Sarritan bide asko premiña haundi barik zementoz tapau dirala uste dot. Baiña okerreña da eztogula ixa ezer egitten geldiketan diran antxiñako bidien arrasto apur horrek zaindu, barriztau, txukundu eta jeneraziño gaztiaguairi erakusteko”.

Goiko lerro horiek orain dela hogeitaz urte idatzi zituen Jerardo Elortzak aldizkari honetan bertan (1993ko uztaila /22. orr.) ‘Ondaria zaindu guran’ atalean. Eta bi hamarkada ondoren bada ere, Garagaltzako auzotarrek heldu diote Elortzak egindako deiari, eta antxiñako Leintz Bidea berritzen hasi dira Udalaren laguntzarekin.

Garai batean Oñatitik Leintz bailarara joan-etorria egiteko erabiltzen zein galtzada hau; San Juan kalen abiatu eta Gaztelondo, Garagaltza, Lamiategi, Urruxola eta Urruxola-Garai mendatetik igarota, Korueta eta Aretxabaletaraino.

Gure arbasoek hainbat mendez erabili zuten bide hau galduta edo porlan azpian estalita dago tarterik gehienetan gaur egun, baina kanposantuko bidetik, sahiesbide ingurutik, San Juanerako zatia mantentzen da oraindik, eta horixe berritzeari ekin diote Garagaltzako auzotarrek, auzolanean.

‘AUZOTASUNA’ PROGRAMA

Udalak 2012an jarri zuen abian ‘Auzotasuna’ izeneko programa, herriko landa-auzoetako bizi-kalitatea hobetu eta auzotarren arteko harremanak sustatzeko helburuarekin.



Bidea
estaltzen
zuen lur
geruza
kendu eta
galtzada
berritzen
ari dira
bertako
harria
berrerabiliz

Auzotasuna programa garatzeko, Udalak 100 mila euroko diru-atala banatzen du herriko 16 landa-auzoen artean (bakoitzak duen bizilagun eta etxe kopuruen arabera), eta auzo bakoitzak erabakitzen du zertan gastatu diru hori: auzo-lokalak berritu, auzoko jaiak antolatu, hitzaldiak eta haurrentzako ekitaldiak antolatu...

Bada, kasu hoentan, ‘Auzotasuna’ programako diruarekin Leintz bidea berreskuratzea erabaki dute Garagaltzako auzotarrek, Jabier Bikuña auzoko hargina eta bere langileen gidaritzapean. Iazko irailean hasi ziren lanean. Aurrena bidea estaltzen zuen lur geruza (bederatzi traktorekada) kendu zuten; gero, euri-urak bideratzeko arketak eta hodiak sartu dituzte, eta azkenik, galtzada berritzeari ekin diote, bertako harria berrerabiliz. Bidearen aldamen batean harlauza zabalek egindako espaloi dotore bat egokitu dute joan-etorriak eroso eta labaintzeko arrisku barik egin ahal izateko.

Asmoa da Etxeberrialdetik Gaztelondorainoko bide-zatia



berritzea. Lan handia eskatzen duen egitasmoa da, eta Garagaltzako auzotarrek astiro astiro egin nahi dute, denborak, indarrek eta Udalaren laguntzak ahalbidetzen duten neurrian. Orain arte egindakoa behintzat oso txukun geratu da.

BESTE AUZO BATZUK

Beste auzo batzuetan ere ari dira lanean Udalaren 'Auzotasuna' programaren bidez. Urruxolan esaterako, berogaillua eta komunak jartzen ari dira elkarteak; Olabarrietan plazatxotik latsarrira doan bidea zabaldu eta baranda jarri dute; Uribarrin hainbat konponketa egin dituzte bertako ermitan; Araotzen hobekuntzak egin dituzte pilotalekuan eta bolatokian; Larrañan sagardoaren inguruko jardunaldiak egin dituzte; Zubillagan auzo-lokaleko lehioak berritu eta elizako portikoaren hegala konpontzen ari dira. ■

AINGERU GUARDAKOA bide eta bidaiarien zaindaria

Antxiñako galtzada eta bideez ari garela, merezi du arreta jartzea Etxeberrialde baserriaren ondoan dagoen Aingeru Guardakoaren santutxuari.

Tradizioaren arabera, bide edo kamino eta ibiltarien babesarekin lotu izan da Aingeru Guardakoaren irudia, eta, beraz, ermitatxo hau hor egoteak badu bere logika, garai bateko bide inportanteen



Morrazkia: Josean San Torcuato

arteko bidegurutzea baitzen, Jerardo Elortzak adierazi digunez. Batetik, Leintzerako bidea igarotzen zen bertatik, San Juan kaletik abiatuta gora jotzen zuena, Garagaltza aldera, eta bestetik, San Juan kaletik Zubillagara zihoana, Goribar Goiti eta Ugartondo baserrien ondotik, errekaen ezkerreko aldetik betiere, errege-bide nagusiarekiko paralelo.

Santutxuak bidegurutze edo bide bazterretan jartzen ziren gehienetan, eta inguruan zuten ermita handiagoaren izena hartzen zuten normalean. Aingeru Goardakoarenaz gain, Olabarrietan (San Kristobal), San Lorentzon (San Lorentzo), Uribarrin (San Andres), Urbietan (San Migel) eta Kasablankan (Santa Katalinarena) ere baziren bere garaian.

URRUXOLAKO GUDUA

Garagaltzako auzotarrak berritzen ari diren Leintz bideak Oñati eta Aretxabaleta lotzen zituen, Urruxola-Garai mendatea igarota. Hori zen, ziurrenera, batetik bestera joateko bide motz eta zuzenena, eta horregatik, hain zuzen ere, Urruxulako gaineko zelaietan gertatu zen XIV. mende bukaerako (1400 aldera) gudu sonatu eta odoltsua, oñatiar eta leiztarren artean, Juan Pérez de Lazarragak 1588an idatzitakoaren arabera.

Liskar gogorrak izaten omen ziren herrietako mugak eta larreen erabilera eskubideak tarteko. Ez zen, nonbait, akordiotara iristeko biderik izan eta, azkenik, auzia arma bidez erabakitzea adostu zuten, borrokarako eguna eta tokia jarri; Oñatiko orduko bi leinu nagusiak (Garaibaitarrak eta Uribarritarrak) batetik, Pedro Gartzia Garibaiko eta Joan Ibañez Lazarragak buru zutela, eta Leintz bailarako lau leinu nagusiak bestetik, Galartza etxeko Gonzalo López Galartzako jauna eta honen bi anai buru zirela. Nonbait, sakoneko arrazoien artean, Oñatiko ganboatarren eta Leintzeko oñaztarren arteko tirabira eta ezin-ikusiak ere ba zeuden.

Jarritako eguna iritsita, borroka-gose ikaragarritz iritsi omen ziren alde biak Urruxula gainera, eta hildako asko eragin zituen borroka odoltsuaren amaieran oñatiarrak gailendu ziren. Hala ere, handik egun gutxira, irabazleen buru zen Pedro de Garibay hil zen, guduan izandako zaurien ondorioz. Baina, nonbait, hainbestekoa zen garaipenak emandako satisfakzioa, ezen ez baitzuen zaurien minik sentitu ere egin, eta kantuan itzuli omen zen etxera, mendez mendez gorde den lelo zahar ezaguna abestuz: "Gaiza zenduan Leintzarrok.

*Urruxulako lakaioa
sendo zenduan odol ori
bihurtu jatzu gatzatua"*

ARREGIKO ALDAPA

Gorago esan dugun moduan, San Juanetik Garagaltzara zihoan Leintz bidea, eta handik Lamiategira jeisten zen, Arregiko aldapan behera. Eta horrek gogora ekarri digu ahozko tradizioak kontatzen duen pasadizu bitxi bat. Urruxulako amandre batek esan omen zuen, heriotzako ordua iritsi zitzaionean. Apaizak galdetu zion ea ba ote zuen arrangura berezirik edo inorekin kontuak argitu beharrik, Jaingoaren aurrera agertu aurretik. Emakumeak erantzun omen zion berak mundu guztiari barkatzen ziola, bati izan ezik. Aho zabalik geratu omen ziren guztiak; zein izango ote zen! Lasaitu ederra hartu zuten, amandre hura Arregiko aldapaz ari zela jakitean. Zenbat neke eta izerdi eragin ote zizkion emakume hari bere bizitzan zehar Arregiko aldapak herriarako bidean.



Argazkia: Txarli

OÑATIKO ADIERAZPENA

erabakitzeko eskubidearen alde

‘Gure Esku Dago’ ekimenak deituta, pentsamolde ezberdineko ehunka herritarrek bat egin dute erabakitzeko eskubidearen alde

‘GURE ESKU DAGO’ lantaldearen ekimenez Erabakitzeko Eskubidearen Aldeko Oñatiko Adierazpena plazaratu zen urtarrilaren 25ean, Sancti Spiritus unibertsitatean, ehun bat herritarren babesarekin. Kultura, kirola, politika, sindikalgintza, enpresa, hezkuntza eta beste hainbat esparrutako pertsona batu ziren bertan, ideia eta pentsakera ezberdinekoak, baina denak bat eginda printzipio honen inguruan: Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea dauka.

‘GURE ESKU DAGO’ ekimena

Iazko ekainean jarri zen abian Goierrri aldean sortutako ‘Gure Esku Dago’ ekimena, eta poliki poliki Euskal Herri osora hedatzen ari da. Erabakitzeko eskubidearen norabidean ahalik eta herritar gehien aktibatzea da bere helburua; alderdi politiko eta ideologia ezberdinen gainetik pentsakera des-



**Ekainaren 8an
Durango eta Iruña artean
egingo den giza-katerako
atxikimenduak
lortu nahi ditu orain
Gure Esku Dago
ekimenak**

berdineko herritar sare zabal eta askotarikoa sortzea, eta benetako protagonista bihurtzea erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenean.

Gure Esku Dago ekimenaren ustez urte garrantzitsua izango da 2014a; Europan bertan Eskoziak eta Kataluniak jarrita dituzte euren etorkizunaren gaineko iritzia emateko datak eta, beraz, hauxe da momentua Europatik datoren haize bolada hartu eta Euskal Herrian ere antzeko prozesu bat abian jartzeko.

GIZA-KATEA

Helburu horrekin, jendea martxan jartzeko asmoz, zita nagusi bat ari da antolatzen Gure Esku Dago ekimena ekainaren 8rako: Durango eta Iruña lotuko dituen 123 km.-ko giza-katea. Gutxienez 50.000 lagun batzea da asmoa, eskutik helduta, denak erabakitzeko eskubidearen alde.

Erabagitzeko Eskubidiaren Aldeko



OÑATIKO ADIERAZPENA

Gaur hemen batu garien oñatiarrok, era askotako oñatiarrok, alkarren bidelagun izatia erabagi dogu, eta halaxe erakutsi gura xangu herrixari. Bidelagun izatia erabagi dogu Erabagitzeko Eskubidiaren aldarrikapenian.

Balitteke hemen alkartutakuok Euskal Herriarendako proiektu nahiz egitura ezberdiak gura izatia. Biharbada hemen gagozen danok eztogu gure herriarendako etorkizun bera amestuko. Baiña, danok bat egitten dogu onarketako Euskal Herrixa izango dan hori, euskal herrittarren erabagiaz izan bihar dala. Horretan danok bat egitten dogu, gaur eta hemen.

Hemen batutakuok Erabagitzeko Esku-bidiaren aldeko jarrera erakutsi gura dogu, printzipio demokratikua dalako. Honekin esan gura dogu eskubide hau gauzaketa eta praktikara eruatia herrittarroi tokaiten xakula.

Eta, azkenik, uste dogu mezu hau gizartian zabalketa joera eta ideologia ezberdiñekuok alkarrekin egin biharreko bidia dala, eta horregatik gagoz gaur hemen danok batera, honako hau erreibindikaitteko:

- Euskal Herrixa naziñua da
- Euskal Herriak bere etorkizuna erabagitzeko eskubidia dako
- Euskal Herritarroi tokaiten xaku erabagi hori hartzea.

Oñatiko Sancti Spiritus unibersidadian,
2014ko ilbaltzaren 25ian

GURE ESKU DAGO ekimenaren inguruko informazio gehiago ondorengo bideo eta bideoklipean.
<http://www.youtube.com/watch?v=dAkHqgTYxI8>
<http://www.youtube.com/watch?v=QxXmS9MhXg>

XABI IGARTUA / Oñatiko 'Gure Esku Dago' taldeko kidea

“Urte inportantea izango da 2014a. Eskozian autodeterminazio eskubidea gauzatuko dute, eta guk aprobetxatu egin behar dugu Europatik datorren haize hori”



Erabakitze eskubidearen aldeko Oñatiko Adierazpena plazaratu zenuten urtarrilaren 25ean. Zein helbururekin?

Gure Esku Dago ekimena aurkeztu zenean, iazko ekainean Ficoban, honela definitu zuen bere burua: dinamika herritarra izango da, irekia, bateratzailea eta plurala.

Beraz, definizio horri jarraituz, Oñatiko 'Gure Esku Dago' lantaldeak pentsatu zuen, herriaren aurrean agertzeko modurik onena izango zela herriko sektore eta sentsibiltate ezberdinetako ehun herritarren artean adostutako adierazpen bat plazaratzea, pluraltasun horren erakusgarri.

Azken batean, ekimen honen helburua da ahalik eta herritar gehien aktibatzea, eta herritarrek izatea benetako protagonistak erabakitze eskubidearen aldarrikapenean.

Beraz, gure balorazioa positiboa da, lortu dugulako herriko ordezkari plural eta zabal batek bat egitea adierazpen honen inguruan. Ehun herritar horiek, orain, ehun altoboz edo bozgorailu izango dira adierazpenaren mezua zabaltzeko.

Hurrengo erronka nagusia ekainaren 8ko giza-katea izango da. Zenbat jende mobilizatu nahi duzue?

Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, Durango eta Iruña arteko 123 kilometroko giza-katea egingo da ekainaren 8an. Horretarako, 50.000 herritar mobilizatu nahi dira, gutxienez. Giza-kateak 6 kilometro egingo ditu Debagoienean, eta Oñatiko taldeak bi kilometro osatzeko

apustua egin du. Horretarako, 800 lagun beharko ditugu, gutxienez.

Ekitaldi inportantea izango da erabakitze eskubidearen aldeko mezua hauspotu eta jendea aktibatze. Hemendik aurrera hasiko gara jendearen atxikimenduak batzen.

Zer esango zenieke oraindik ere hotz samar dauden herritarrei?

Urte hau, 2014a, oso inportantea izango dela. Irailaren 18an Eskoziak erreferenduma egingo du bere etorkizuna erabakitze, Erresuma Batua bezalako estatu baten onarpenarekin. Hau da, Europar bertan, eta XXI. mendean, autodeterminazio eskubidea gauzatu daitekeela ikusiko dugu, bide baktseuen bidez, inolako arazorik sortu barik.

Katalunian ere abian da herri galdeketa; Korsika, Flandria eta Groenlandian ere badira mugimenduak. Une historikoa izango da; nazioek oihartzuna izango dute Europar. Beraz, Euskal Herrian ere gai izan behar dugu ahalik eta herritar gehien aktibatu, denon artean oihaltzabal bat osatu, eta Europatik etorriko den haize bolada baliatzeko.

Horixe da Gure Esku Dago ekimenaren helburua. Horregatik, ahalegin berezia egin behar dugu, erabakitze eskubidearen aldeko aldarria lehen planora ekartzeko eta jendea gogoeta eragiteko. Sinistu egin behar dugu euskal herritarrok ere eskubidea dugula zer izan nahi dugun esateko, eta gaur egun Erropan posible dela autodeterminazio eskubidea gauzatzea.



IRAZOLA
Okindegia

Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko labea



Margoak
TXINTXURRETA

653710121
943783012

■ ADAM CZARNOTA

Lege-Soziologia Institutoko zuzendari zientifikoa

“Asia hego-ekialdea eta BRICeko herrietara ireki nahi dut Oñatiko Lege-Soziologia institutua”

25 urte betetzen ditu aurten Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Ereakundeak (LSNE). Hori ospatzeko, kongresu berezia egingo dute maiatzean. Mundu mailako aditu ugari bilduko dira Oñatin, lege-soziologiaren iragana, oraina eta etorkizunari buruzko hausnarketa egiteko. Bestalde, egia da, baita ere, ekonomikoki une delikatua bizi duela Oñatiko lege-soziologia erakundeak, krisiaren ondorioz %25eko murrizketa jasan baitu aurrekontuan azken hiru urteotan. Egoera horretan hartu du zuzendari kargua Adam Czarnota poloniarra. Institutoaren egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez hitzegin dugu berarekin.

LSNEko zuzendaritza hartu berrian esan zenuen ez dela une erraza kargua hartzeko. Zergatik?

Ez da une erraza, ez, kontuan hartuz aurreko hiru urteetan %25eko murrizketa izan dugula gure aurrekontuetan. Eta nik entzun dudanez, institutuaren etorkizuna bera ere kolokan egon da azken urteotan.

Zorionez, ordez, mamu horiek uxatu dira, eta irailean izan genuen patronatoaren bileran babes osoa eman zigun Jaurilaritzak, eta mantendu egin du iazko aurrekontua.

Tamalez, aurrekontuetan izandako murrizketak gure liburutegiko jardunean izan du inpaktorik handiena, eta hori kezkatzekoa da, liburutegia delako institutu honen altxor nagusienera; liburutegia da, hain zuzen ere, mundu mailako ikasle eta ikerlari asko Oñatira ekartzeko gantxo-etako bat.

Beraz, neurri ezberdinak hartzen ari gara, murrizketek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten. Besteak beste, urtean zehar antolatzen ditugun ikastaroetako tarifak

igo ditugu. Bestalde, azpimarratu nahi nuke bertako langileak egiten ari diren lana, institutuaren jarduna eta arrakastari eustearren.

Hurrengo bi urteetarako erronken artean, Oñatiko LSNE Munduko beste herrialde batzuerara ireki nahi zenukeela esan duzu. Nora?

Bai, batez ere BRIC bezala (Brasil, Errusia, India eta Txina) ezagutzen ditugun herrietara zabaldu nahi nuke, eta bertako ikaslerik onenak erakarri. Oñatiko LSNE oso ezaguna da Latino-Amerikan, Europan eta, oro har, mundu anglosaxoian, baina Asiako ekialde eta hego-ekialdeko herrialdeak kanpoan geratu dira, eta lortu behar dugu lege-soziologiaren inguruko ezagupenak inguru horietara ere zabaltzea, herri horietan ematen ari diren eraldaketa sozio-politikoaren katalizatzaile izan daitezen.

ADAM CZARNOTA

poloniarra da Lege-Soziologia institutoko zuzendari zientifikoa iazko irailaz geroztik, eta bi urtez izango da karguan.

Zuzenbidea eta Gizarte Zientzietako ikasketak egin zituen Poloniako *Copernicus* unibertsitatean. Zuzenbidean doktorea da. Azken 30 urteetan Australian bizi da, eta Sydneyko New South Wales Unibertsitateko Zuzenbide irakaslea da. Hainbat ikerketa lan argitaratu du lege-soziologia eta teoria politikoari buruz. Gaur egun monografia bat prestatzen ari da gizarte post-komunistetako iragana kudeatzeko lege estrategiengurur.

Oñatiko Institutua ondo ezagutzen du. Master programa ezberdinetan ematen ari diren eskolak eta komite zientifikoko kide izan da



Lege-soziologiari buruzko ezagutza zabaldu behar dugu Asiako hego eta hego-ekialdeko herrietan, bertan ematen ari diren eraldaketa sozio-politikoaren katalizatzaile izan daitezen

Ni poloniarra naiz eta Australian ere urte asko eman ditudanez, lankide ugari ditut promozio hori egiten laguntzeko.

Ido horretan, aurten Myanmar-era (Birmania) joango naiz, bertako erregimen militarra aldatu nahian ari diren aktibistei formazioa ematera.



Azken hiru urteotan %25 murriztu da institutuaren aurrekontua krisiaren ondorioz

Bestalde, erregimen komunistaren erorketaren 25. urteurrena betetzen dela kontuan hartuz, maiatzeko kongresuan leku bat egingo diogu gai honi, Errusia eta, oro har, ekialdeko adituak erakartzeko asmoz.

Japoniara bidaiatzeko asmoa ere badut, hango unibertsitateetan Oñatiko institutuaren berri emateko.

Bestalde, hutsune handia ikusten dut Afrika iparraldeko herrialde islamiarretan. Han ez da garatu lege-soziologia, baina ez dut biderik eta aukerarik ikusten hara iristeko.

Beste zein helburu dituzu hurrengo bi urteetarako?

Europar beste bi zentro daude lege-soziologian espezializatuak, Suedian bat, eta Danimarkan bestea, eta hauekiko elkarlana sustatu nahi dut, ikasleek aukera gehiago izan dezaten, eta, bide batez, kostuak murriz-

“Oñatiko herriarekiko hartuemanana estutu nahi dugu”

Lege-Soziologia institutua Oñatiko herriko parte izatea nahiko lukeela adierazi digu Adam Czarnotak. Ildo horretan, duela urte batzuk hasitako bideari jarraituz, Master-eko ikasleak herriko ikastetxe ezberdinetara joango dira, lege-soziologia zer den azaldu eta bakoitzaren sorterriko ohiturez hitz egitera.

Bestalde, herritarrek jakin behar dute, tarteka interes orokorreko hitzaldi eta proiektzioak antolatzen dituela institutoak arratsaldeetan, eta herritar guztiak gonbidatuta daudela hitzaldi hauetara. Urtarrilean zehar

“Tarteka, gai orokorreki buruzko hitzaldiak antolatzen ditugu arratsaldetan, eta irekiak izaten dira nahi duten herritar guztientzat. Hil honetan Batxilergo mailako 160 ikasle gonbidatuko ditugu, lege-soziologia zer den eta institutoan egiten den lana erakusteko”

esaterako, Europako Konstituzioa eta Espainiako Infantak justiziarekin duen auziaren inguruko hitzaldi bana izan dira Antia jauregian. Eta otsailaren 27an Oñatiko Batxilergo mailako 160 ikasle gonbidatuko dituzte LSNEra; lege-soziologia zer den eta institutoan egiten den lana

erakutsiko diete. Ildo horretan, dio Adamek, interesgarria eta aberasgarria litzatekeela, Oñatiko herritarrek ere institutora hurbiltzea herriko berri ematera.

Iazko irailean kargua hartu zuenetik Antia jauregian bizi da Adam, eta Oñatin oso gustura dagoela aitortu digu. Zoritxarrez, komunikatzeko arazoak izaten ditu, ez baitu hitzegiten ez gazteleraz, ezta euskaraz ere, baina, oro har, herritarrek oso atseginak direla dio. Bi urte hauen ondoren, Oñati eta Euskadiri buruzko liburu bat idatzi nahi du, polonieraz. Han ezer gutxi omen dakite Euskal Herriaz; “Andaluziatik gertu ote dagoen galdetzen didate”.



Masterra eta bilera zientifikoak

Urtero munduko herrialde ezberdinetako 20 bat ikasle etortzen dira Lege-Soziologia institutora masterra egitera. Irailetik martxora arte egoten dira Oñatin. Gehienak Antia jauregian bizi dira. Aurten Nigeria, Kanada, Ghana, Turkia, Italia, Estatu Batuak, Kolonbia, Georgia, Suedia, Liberia, Txina eta Irango ikasleak daude, besteak beste.

Master programa amaitzen denean, martxotik uztailera bitartean, workshop edo bilera zientifikoak antolatzen dira Institutuan. Aurtengorako, 13 lan-bilera daude programatuta: ‘Sexu gehiegikeriak elizan’, ‘jabetza aukera alternatiboak’, ‘epaitegi mixtoak: etorkizuneko joerak’ eta ‘etorkinen integratze politikak’ bezalako gaiak landuko dituzte. Gero, uztailen, Justizia Transizionala Euskal Herrian izeneko kongresua egingo da Oñatiko LSNE erakundean.

teko.

Bestalde, Euskal Herriko eta Deustuko unibertsitate-etako ikerketa zentroekiko harremana estutu eta elkarlana sustatu nahi nuke, denon onerako izango baita. Ildo berean, Innobasque erakundearekin ere hartu-emanetan gaude, atzerriko ikerlariak erakartzeko asmoz.

Aurten bi kongresu antolatu behar dituzue, ezta?

Bai, maiatzean bat, Oñatiko LSNEaren 25. urteurrenako ekitaldia izango da. Lege-soziologiak orain arte egin duen bidea aztertu eta etorkizuneko ildoak markatu nahi ditugu.

Bestalde, uztailen Justizia Transizionala Euskal Herrian izeneko biltzarra antolatuko dugu, Joxerramon Bengoe-txearekin elkarlanean. Kolonbia eta herrialde komunista ohietan izandako prozesuak eta Euskal Herriko egoera aztertuko dugu, besteak beste. ■

Garay eta Lazkanoiturburu agustino oñatiarrak omendu dituzte Manisesen



Maniseseko ESQUERRA UNIDAK ematen duen 'Premio 14 de Abril' saria jaso dute

► Bertako auzo pobreetan egindako lana aitortu eta giza-baloreen herritar eredugarri izendatu dituzte

Jose Luis Lazkanoiturburu (Oñati, 1929) eta Antxon Garay (Oñati, 1938) agustinoek Manises (Valentzia) hiriko Esquerra Unidak (EU) ematen duen 'Premio 14 de Abril' saria jaso dute, 45 urte luzez egindako lana aitortu eta Maniseseko herriak zor dien esker onaren erakusgarri.

Azpimarratzekoa da, gainera, ezkerreko alderdi bat izan dela Oñatiko apaizen lana goraiatu eta eskertu nahi izan duena. Hala, Maniseseko EUk Oñatiko agustinoek egindako lanaren garrantzia azpimarratu nahi izan du. "Berrogeita bost urteko elkarbizitzan hainbat eta hainbat lan egin dituzte herri honen eta bertako herritarren alde, une alaiak eta nahigabeak konpartituz, baina betiere protagonista izanik gure herriaren historian hain garrantzitsuak izan diren urte guzti hauetan. Horregatik, Maniseseko herritarrok, elizatarrek izan ala ez, harro gaude eta pribilegiatuak sentitzen gara gure bizitzak Antxon eta Jose Luisekin konpartitzeko aukera izan dugulako, eta elkarrekin eraiki ahal izan ditugulako guretzako eta gure ondorengoentzako lagungarriak izango diren bizi-esperientzia asko".

"Zorte handia izan da guretzat apaiz bikote euskaldun hau gure artean izatea" jarraitzen du EUren adierazpenak, "ustelkeria eta diru-zalekeria nagusi diren garai hauetan 'beste mundu hobe bat posible da' utopia gerturatu eta posible dela erakutsi digutelako, eta gure seme-alabeei beste eredu bat eskaintzeko aukera eman digutelako. Horregatik, uste dugu nahikoa arraozi dagoela giza-baloreen herritar eredugarri izendatzeko".



Maniseseko herritarrok, elizatarrek izan ala ez, pribilegiatuak sentitzen gara, urte hauek guztiak Antxon eta Jose Luisekin konpartitu ditugulako eta bizi-esperientzia aberatsak elkarrekin eraikitzeko aukera izan dugulako"

MANISESEKO ESQUERRA

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

45 URTE Manisesen apaiz-langile gisa

Jose Luis Lazkanoiturburu eta Anton Garay 1969an iritsi ziren *Manises* hirira, *Quart de Poblet* eta *Aldaya* herriekin mugakide den *Barrio del Cristo* izeneko auzo marginalera. Etorkinez betetako auzo pobrea zen, eta elizara inor gutxi joaten zela ikusita, herri xehean integratu eta herritarrekin batera lan egiten hastea erabaki zuten, 'apaiz-langile' gisa; hau da, parrokiako zereginei erantzuteaz gain, eraikuntzan, eta arotz, pintore edo iturgin lanetan aritzen ziren, beste edozein herritar bezala, hauen konfidantza irabazi eta beraien arazoak gertutik ezagutzeko asmoz.

Auzotarren arteko batzarretara ere joaten ziren, hauen arteko elkarbizitza bideratu eta hobetzen saiatzeko, betiere arreta berezia jarritzak pobreei eta etorkineei.

Hasieran, herritar askoren susmo txar eta gaizki esanak eragin zituen apaizen jokabide honek, baina agustinoek eutsi egin zioten hasitako bideari, hitzarekin eta ekintzarekin, justiziaren alde, herritarren arteko berdintasuna eta adiskidetasuna lortu nahian, lan sozialari arreta berezia jarritzak, eta kristatutasun bizitzeko beste modu bat eskainiz.

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

32. laguntza kontainera bidali du HERMANSOLOÑAK Argentinara

Argentinako gobernuarekin izandako arazoak bideratu ondoren, ia 20 tona materialez (erropak, oinetakoak, eskola materiala, etxerako ontziak, pintura...) osatutako laguntza kontainer berria bidali zuen Hermansoloña taldeak urtarilaren 15ean Oñatirekin anaitutako Jose C. Paz herrira. Gero, ohi bezala, familia behartsuenekin lan egiten duten 50 zentro ezberdinetara banatuko da materiala.

"Oraindik ere laguntza premia handia dago" adierazi zuen Jose Antonio Urteaga taldeko presidenteak urteko batzar orokorrean. Beraz, laguntza bidaltzen jarraitzeko asmoa agertu zuen, erritmoa pittin bat jeitsita. "Orain arte 3 kontainer bidali izan ditugu urtean, baina Udalarekin geneukan estatus berezia -Anaitze batzordetik sortutako taldea garelako- galdu dugunez, dirulaguntza ere erdira jeitsi da, eta, beraz, urtean bi kontainer bidali ahal izango ditugu". Hala ere, Udalak proiektuaren laguntzaile nagusia izaten

jarraitzen dela argitu zuen Urteagak, bai ekonomikoki, bai operatiboki.

BAZKIDE GEHIAGOREN BEHARRA

Laguntza kontainerak bidaltzeaz gain, Ulma, Orona eta Irizar enpresen laguntzari esker eraiki duten Tailer-Eskola martxan jartzea, eta Albricia izeneko ekintzailetasun zentroa koooperatiba bihurtzea daude aurtengo egitasmoen artean. Horretarako, eta beste proiektu batzuk garatu ahal izateko, bazkide kopurua handitu beharra daukatela adierazi zuen Urteagak.

Argentinako lankidetzak proiektuez gain, Oñati eta Euskal Herriko beste ONG batzuekin lankidetzan jarraitzeko borondatea berretsi du Hermansoloñak. Ildo horretan, 2013an zehar Oñatiko ACESMA taldearekin (laguntza kontainera Kubara) eta parrokiako Misio taldearekin (Haiti eta Maliko proiektuak) kolaboratu dute, besteak beste.

Kristau Eskolak Leintz bailarara zabalduko du bere hezkuntza eskaintza

Elkar Hezi ikastetxearen bidez
Arrasate, Aretxabaleta eta
Eskoriatzan eskainiko du
bere hezkuntza proiektua
2014/2015 ikasturtean

Ebanjelioaren balioak ardatz hartzen duten ikastetxeak biltzen dituen Kristau Eskola (KE) erakundeak bere hezkuntza eredua euskal herritar guztien eskura jartzea du helburu. Eta arrazoi ezberdinak tarteko, historikoki presentzia zabala eta askotarikoa (San Viator ikastola, Mesedetako Ama ikastetxea...) izan duen Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate aldean gaur egun ez dago KEren eskaintzarik.

Hutsune hori bete asmoz, KEk gizarte-ikerketa bat egin zuen iazko maiatzean

herri horietako 600 familia elkarrizketatuz. Eta ikerketa horrek agerian utzi zuen badela familia kopuru esanguratsu bat begi onez ikusiko lukeena euren seme-alabentzako halako hezkuntza proiektua eskura izatea.

Horren aurrean, hilabete batzuetako hausnarketa prozesu baten ondoren, KEko zuzendaritzak eta Elkar Hezi ikastetxeko arduradunek erabaki dute 2014-2015 ikasturtera begira bere eskaintza egitea Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasaten Elkar Hezi ikastetxearen bidez.

Beraz, hurrengo urtetik aurrera, herri hauetako familiek unibertsitate arteko heziketa prozesu osoa (Haur Eskola, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa) osatzeko beste hezkuntza proiektu desberdin bat izango dute auukeran.

**Baserriko kiwi ekologikoak
goxo-goxoak**



3 tamaina (10kg. kaxak)

Haundiak 18€
Ertainak 13€
Txikiak 10€

IRABAN baserria • Tel.: 943 78 18 32

OPARITU EMOZIOAK

- Pixoihal tartak
- Gosariak etxez etxe
- Ospitaletara bidalketak



Tel.: 663 764 511

www.cestasyregalosadomicilio.com

Torturari buruzko erakusketa Memoria Taldearen eskutik

Kultur Etxean dago ikusgai otsailaren 12ra arte

Otsailaren 13a Torturaren Nazioarteko eguna da, eta horren harira Oñatiko Euskal Memoria Taldeak torturari buruzko erakusketa jarri du kultur etxean (astelehenetik igandera, 18:00-20:00).

‘Oso latza izan da. Tortura Euskal Herrian’ liburuan agertzen diren datuak, argazkiak eta torturatuak izan direnen testigantzak egongo dira ikusgai. Gainera, Oñatiko Memoria Taldeak erakusketa honetarako espresuki grabatu duen bideoa ere ikusi ahal izango da hilaren 12an (19:00).

“Azken hamarkadetan milaka euskal herritar izan dira torturatuak, batzuk heriotzeraino (Joseba Arregi, Gurutze Iantzi, Xabier Kalparsoro, Mikel Zabaltza...). Eta Oñati ez da salbuespena izan. Gure herrian ia 200 lagun izan dira atxilotuak garai horretan, eta 60 batek onartu dute torturatuak izan direla” adierazi dute antolatzaileek.

Horiei guztiei eskainitako tributu gisa antolatu da



Memoria Taldeak grabatu duen bideoa emango dute otsailaren 12an, 19:00

erakusketa, torturaren inguruan egon den zigorgabetasuna salatu eta egia ezagutzera emateko asmoz. “Egia eta justiziarik ireki behar zaio bidea, urteetan isilarazi eta faltsutu dizkiguten gertakarien memoria berreskuratzu, ondorengo belaunaldiak gertatutakoaren egia ezagutu dezaten” dio Oñatiko Memoria Taldeak.

Krisiaren aurkako planik ez edukitzea leporatu dio EAJk Bilduri

Debagoieneko EAJk zabaldu duen prentsa ohar baten bidez, krisiaren aurkako planik ez edukitzea leporatu dio Bilduri. “Bizi dugun egoeran baliabide guztiak krisiari aurre egin eta enplegua sortzera bideratu beharko lirateke, baina Bilduren lehentasuna atez atekoa ezartzea da, sustapen ekonomikoa bigarren mailan utziz”. Atez ateko bilketa sistema Antzuola, Oñatin eta Bergaran bakarrik jarrita gastuak bikoiztu egin direla ohartarazi du EAJk, eta horri aurre egiteko, Epeleko zabortege zaharra zigitatzeko diru poltsa erabiltzea leporatu dio Bilduri.

Gardentasun falta ere egotzi diote jeltzaleek Bilduri. “Aurtengo aurrekontuetan %23ko igoera onartu du mankomunitateak hondakinen tasan, eta, aldiz, Bergarako udalak, esaterako, %4koa. Nork ordaindu behar du diferentzia hori? Mankomunitateko aurrekontuak fiktizioak dira, ala udaletakoak dira gezurrezkoak?”. Hurrengo lau urteetan atez ateko inbertsioetara 4 milioi bideratuko dituela azaldu du EAJk; “gure etorkizuna hipotekatzan ari da”.

Zaborrak batzeko gastua bi urteren buruan %29,40 igo den bitartean. Garapen Agentziaren aurrekontua %9,66 igo da, EAJk azaldu duenez; “Lanbide Hastapenera 2012ko kopuru berdintsua bideratuko da aurrean. Zilegi al da krisiari aurre egiteko ekimenetan atzera egitea”.

Inposiziotik errepresiora

Atez ateko bilketa sistema bermatzeko Mankomunitateak onartu berri duen ordenantza zigortzailea ere salatu du EAJk. “Desobedientzia zibila eta herri protestaren aurka errepresiorako tresna sortu su Bilduk. Gainera, Mankomunitateak izango du isunak jartzeko eskumena, eta haren babesean ezkutatu dira atez atekoa ezarri duten herrietako alkateak. “Gauza kuriosoa gertatuko da” salatu du EAJk; “Mankomunitateko arduradun nagusia Arrasateko alkata dela kontuan hartuz, berak ipiniko al dizkigu isunak bergararroi, oñatiarroi eta eskoriatzarroi atez atekoa ez onartzeagatik? Arrasaten 5. edukiontzia jarri eta besteetan isunak?”

Tindaya mendiari buruzko dokumentala grabatzeko finantziazioa lortu du Kepa Aranburuk

Kepa Aranburu zinegile oñatiarrak Fuerte-venturako Tindaya mendiari buruzko luze-metraia grabatzeko finantziazioa lortu du, Verkami plataformaren bitartez egindako mikro-mezenasgo kanpainaren bitartez. Hala, jendeak egindako diru-ekarpenei esker 5.830 euro batzea lortu du Kepak, grabaketa lanen kostuei aurre egiteko beste.

‘Tindaya, montaña sagrada’ du izenburua Kepak egin nahi duen dokumental formako luzemetraiak, eta ondare kultural eta arkeologikoa babestearen gaia aztertuko du.

Tindaya mendia, Fuerte-venturako lehen biztanleak izan ziren afrikar jatorriko Majo-en munda majikoari lotuta egon da beti, eta bertan dago Majoen kultuaren erakusle diren podomorfoen (hanka itxurako grabazio litografikoak) aztarnategi nagusia. Mmendi berezia da Tindaya; babestutako leku bat.

Baina, hala ere, mehatxatuta dagoen mendia da, alde batetik Eduardo Chillidaren obra (50m3-ko zulo bat mendiaren barrenean) egiteko proiektua dagoelako, eta, bestetik, gobernu kanariarrak bertan dituen interes ekonomikoengatik (Trakita izeneko mineral baliotsua dago Tindaya mendian eta horiek ustiatzeko baimena eman du gobernuak.

Kepak otsaila bukaren egin asmo ditu grabazio lanak, udaberrian muntatu eta udarako prest edukitzeko.



ERREHABILITAZIO ETA FISIOTERAPIA ZENTROA

San Lorenzo 54, behea
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 53 32 99 - 652 71 21 23
eratu@euskalnet.net

AMATASUNAREN INGURUKO ESKOLA

Profesionalki geldialdi bat egin ostean, indarberrituta itzuliko dira Amatasunaren inguruko saioak Eratu Fisioterapia zentrura.

Miren Galdos 1982 Oñati. Fisioterapia diplomaturia, fisioterapia obstetrikotik eta uroginekologikotik espezializatua, gaur egun osteopatiako formakuntzan dihardu. Amatasuna dela eta profesionalki geldialdi bat egin ostean, bere egunerokora bueltatuko da Martxoan.

Duela 7 urte hasi zenuen fisioterapia negozioaren bidea. Jakin badakigu, amatasunaren inguruko espezializazioan buru belarri ibili zarela. Zeintzuk dira lanera bueltako zure proiektuak?

Proiektuen artean, egindako lanari jarraipena ematea da, berrikuntza batzuekin, kalitate bera edo hobea emanez. Amatasunera gertakuntzan berrikuntzak izango dira, emagin baten laguntza izango dut ikastaroan eta edoskitzeari (laktantziari) garrantzia gehiago emango diogu besteak beste. Nere esperientzia pertsonalak ere lagundu dit beste ikuspuntu bat gehitzen.

Erditze osteak orainarteko bidea jarraituko du, hori bai Eratu fisioterapia zentruan emango ditut klaseak eta taldeak kopuru txikikoak izango dira kutsu pertsonalizatuagoa emateko, honela kalitatea gehituz ekintzari. Prezioak gainera oso konpetitibak izango dira, ez dute gain kostu bat izango.

Beraz amatasun gertakuntzako ikastaroak aberatsagoak izango dira?

Hori da nere asmoa, orain arte bakarka egin dudana emagin baten erfortzuaz egingo dugu, airean geratzen zirenen gai batzuk sakonduz. Taldea txikitzen lan egiten jarraituko dugu orain



X.Rezabal

arte bezala pasio guztia ipiniz.

Erditze ostean berriz? Beste etapa bat?

Hori da, erditze ostean Eratu fisioterapia zentruan emango da, San Lorenzoan. Erditze ostean errehabilitazio garaia da. Hipopresiboak egitea baino askoz gehiago da, erditze osteko ikastaroa. Emakumeek auto ezagutza prozesua ikastaroen bitartez egiten dute. Errehabilitazioa ariketa eta teoriak batuz lortzen dugu. Bukaera emakumeak lehengo egoera lortu eta lehengo aktibitateak egiteko gai izango dira.

Bukatzeo haurren masaje ikastaroari buruz galdetuko dizut. Zeintzuk dira honen helburuak?

Helburu nagusia haurraren komunikatu eta binkulu emozionalak eta pertsonalak areagotzea da. Honetarako talde txikietan lan egiten ohi dut eta guraso biek etortzeko aukera izaten dute haurraren, familian gozatzeko ariketa on bat da.

BEZEROEN ESANAK

Alazne Inza

“Teoria eta praktikak uztartzea oso interesgarria iruditzen zitzaidan. Gorputzak asko eskertzen du.”



Amaia Castaños

“Erditze aurreko ikastaroak ezagutza eta konfidantza handia eman zidan erdizterako orduan.”



Ainhoa Legaristi

“Teknika oso baliagarriak dira. Haurren masajea, adibidez, etxean praktikatzeko jarraitzen dugu.”

Saioa San Vicente

“Gora-behera emozionalei bere denbora eskeintzen lagundu dit. Arlo fisikokoko aldaketak ere ulertu ditut.”



Spinning zaleentzako MASTER CLASS ZIRKUITOA

► Apirilaren 5ean Oñatin egingo den spinning maratokia prestatzeko bost master class antolatu dituzte



Apirilaren 5ean Oñatin jokatu den IV. Aretu Bizikleta Maratokia prestatu eta girotzen joateko, bost master class antolatu ditu 'E-goitek' Kirol Zerbitzu enpresak, Arrasate, Antzuola, Legazpi, Zumarraga eta Oñatiko udalekin batera.

Ondoko taulan ikus daitekeen moduan, herri bakoitzean egingo da saio berezi hauetako bana. Ordu eta erdiko saioak izango dira, goizeko 10:30etan hasita. Plaza guztiak betetzen badira, bigarren siao bat egingo da 12:00etan, eta beharrezkoa balitz, hirugarren bat goizeko 9:00etan. E-goitek enpresako monitore ezberdinen artean girotu eta gidatuko dituzte saio berezi hauek.

MASTER CLASS EGUTEGIA

- Urtarrilak 25 ... Antzuolan
- Otsailak 8 Arrasate
- Otsailak 22 ... Legazpi
- Martxoak 8 ... Oñati
- Martxoak 22 .. Zumarraga

SPINNING MARATOIA

- Apirilak 5 Oñati

Master class hauek dohainik izango dira kiroldegiko spinning ikastaroetan dabilen jendearentzat. Saio bakoitzeko eguna baino bi aste lehenago irekiko da izen-ematea; kiroldegiko harrera zerbitzuan edo emailaz (erronka2014@gmail.com) eman ahal izango da izena.

Bakoitzak nahi beste saiotan parte hartu ahal izango du, edozein herritan delarik ere. Ildo horretan, antolatzaileek saritu egingo dituzte master class guztietan parte hartzen duten pertsonak.

Oñatin emango zaio amaiera 1go Spinning Zirkuitoari, apirilaren 5ean Zubikoan egingo den 3 orduko maratoiarekin. Ehun bat lagunentzako tokia egingo da bertan.

GIMNASIA ABDOMINAL HIPOPRESIBOA

► Kirol errendimendua hobetzeaz gain, osasun aldetik onura ugari dituen jarduera



TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA / OTSAILAK 21

Gimnasia Abdominal Hipopresiboa zer den eta nola egiten den azaltzeko tailer teoriko-praktikoa egongo da otsailaren 21ean Zubikoan kiroldegian bertan, arratsaldeko 18:00etan. Ekitaldi irekia izango da, interesa duten guztientzat.

Zubikoa kiroldegiak eskaintzen dituen fitness arloko aktibitateen artean, bada bat, hain ezaguna ez dena, baina oso interesgarria dena, osasun mailan dituen onurengatik batez ere: GIMNASIA ABDOMINAL HIPOPRESIBOA.

Arnasketak eta gorputzaren postura eta mugimendu espezifiko batzuk konbinatuz, gerri-buelta (faja abdominala) eta zoru pelbikoko muskulatura indartu eta tonifikatzen duen jarduera da. Gainera, bizkar aldeko posturak zuzendu eta hobetzen laguntzen du. Beraz, oso aktibitate gomendagarria da, gerri, bizkar edo zerbikaletako minak dituen jendearentzat. Gainera, era guztietako herniak prebenitzeko oso egokia da, eta baita txizari eusteko arazoak dituzten emakumeentzat ere (erditze ostean batez ere).

Osasun arloko onurez gain, kirol errendimendua hobetzen ere laguntzen du gimnasia mota honek, arnasketa eta diafragma lantzen dituen, oxigenazioa eta arnasketa ahalmena hobetzen laguntzen digulako. Bide batez, antsietate arazoak kontrolatzeko ere lagungarria da. Eta azkenik, onura estetikoa ere badu, gerri-buelta gogortu, tonifikatu eta gerri-perimetroa estutzen dugulako.

Astean ordubeteko bi saio izaten dira kiroldegian: astelehen eta asteazkenetan, goizez (10:15) edo arratsaldez (17:15 / 20:15).

Aloña Mendiko Atletismo taldea Euskadiko azpitxapelduna krosean

Espainiako txapelketarako sailkatu da bigarren urtez jarraian

Aloña Mendiko senior mailako atletismo taldea bigarren sailkatu da Euskadiko Kros motzeko txapelketan, eta, horrenbestez, Espainiako txapelketarako sailkatu da, bigarren urtez jarraian. Otsailaren 2an Amurion jokatu zen Euskadikoa, eta **Sergio Garcia** izan zen gure ordezkari onena, hirugarren postuan; **Alberto Revuelta** 7. sailkatu zen, **Yeray Varela** 19. eta **Andoni Correas** 61. Espainiako txapelketa martxoaren 2an jokatu da Oropesa del Mar-en

Beteranoen mailan ere lan bikaina egin zuten Aloña Mendiko korrikalariek. **Jose Luis Garciak** garaipen lortu zuen V-55 mailan, eta **Ramon Varela** hirugarren sailkatu zen. **Marisol Ramos** bigarrena izan zen.

Eskolarteko mailan ere, azpimarratzekoa Alebin mailako taldeak lortutako 3. postua. **Gexan Anduaga** (12.) eta **Igor Mugarza** (16.) izan ziren azkarrenak.



BINAKAKO URREZKO AIZKORA



txapelketako finalerdi bat
Oñatin jokatu da
otsailaren 22an

Herri kirol zaleak zorioneko daude, gaur egungo aizkolaririk onenetakoak lehian ikusteko aukera izango baita Oñatin hilaren 22an. Binakako Urrezko Aizkora txapelketako finalerdietako bat jokatu da Zubikoa pilotalekuan (17:00). Oraindik ez dago jakiterik zein aizkolari ariko diren Oñatin, datorren igandean jokatu baina ligaskako azken saioa, baina ikuskizuna ziurtatuta dago. Aizkolariek sei lan ezberdin egin beharko dituzte: kolpeka, erlojuaren kontra, abiadura, enborra zutik, etzanda...

Gainera, ikuskizuna osatuz, Izeta aita-semeek erakustaldia egingo dute harrijasotzen. Sarrerak 8€ balioko du

Oñatiko jaietako herri-kirol saioa antolatzen duen taldearen ekimenari esker iritsiko da Urrezko Aizkora txapelketa Oñatira, Udalaren laguntzarekin.

► OÑATIKO KIROLARIAK SARITUAK

Oñatiko zenbait kirolari saritu egin dituzte azken egunotan, iazko urtean egindako lan bikaina aitortuz. Hala, Euskadiko Automobilismo Federazioak egindako galan, **Aitor Ramirezek** saria jaso zuen, mendi igoeren



txapelketan azkarrena izan zelako turismoen kategorian.

Bestalde, Euskadiko Triatloi federazioak **Iker Arkauz** saritu zuen, iaz Junior mailako Euskadiko Duatloi zirkuitoa

irabazi zuelako. Oñati Triatloi Taldean ari den **Ainhize Barrainkua** atxabaltarra ere saritu zuten, hirugarrena izan zelako Kadete mailako triatloi zirkuitoan. Azkenik, **Amaia Bernalek** ere saria jaso berri du, herri

lasterketen Kirolprobak liga irabazi duelako bigarren urtez jarraian. Arautegian markatutako 12 lasterketetan lortutako puntuazioaren arabera erabakitzen da sailkapena.

► Mendiko Eski Ikastaroa

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta, mendiko eski ikastaroa egongo da otsailaren 22-23an Gavarnien. Bi maila egongo dira: Hastapena (oinarriko teknika landuko da) eta Trebakuntza (mota eta zailtasun guztietako ibilbideak egiteko teknika landuko da). Informazioa: www.gmf-fgm.org/lang/eusk



Ilea, **nahi duenarentzat**

not+vello ©
fotodepilación con tarifa plana

Olakua 1 Bajua
☎ 943716713
onati@nomasvello.com



www.nomasvello.es

Otsaileko eskaintza

***60€** hiru zona edo sesio

***20€** zona berri bat

* Eskaintzan ez dira hankak sartzen. 20€ zona berria, bezeroentzat. Informazio gehiago www.nomasvello.es webgunean.

» UDAL LIBURUTEGIA - OTSAILA

► IPUIN KONTAKETA SAIOA
HELDUENTZAT / OTSAILAK 12

Udal Liburutegiak helduentzako ipuin kontaketa saioa antolatu du Bea Elgezabalen eskutik. Ipuin kontalaria eta clown-a da Bea, eta esperientzia luzea du kontu-kontari gisa, kontatzea merezi duten istorio eta errealitateak modu erraz eta zuzenean azaltzen, emakumearen ikuspuntutik. Oraingo honetan 'Baubo' izeneko istorioa kontatuko du. Fisikoki berezia zen Baubo, baina bazuen zer, nori eta non esateko. Jakiterik nahi? Otsailaren 12an izango duzu aukera, arratsaldeko 19:00etan, udal liburutegian.

► 'TERTULIXAN'
IRAKURLE TALDEAK

Udal liburutegiko irakurle taldeek saio berri bana izango dute hil honetan, aurrez irakurritako liburua aztertzeko. Gaztelerako taldea Shaun Tan-en 'Emigrantes' nobela grafikoari buruz ariko dira otsailaren 18an (18:30). Euskarazko taldeak berriz, Xabier Mendigurenaren 'Sakoneta' eleberria aztertuko du hilaren 25ean (18:30). Saio hauetan parte hartzeko izena eman behar da aurrez.

► HAURRENTZAKO IPUIN
KONTAKETA/ OTSAILAK 27

Hileko azken ostegunean haurrentzako ipuin kontaketa saioa egoten da udal liburutegian, 'Ostegun Kontalariak' programaren barruan. Hil honetakoa Izaskun Mujika aktore eta ipuin kontalari nafarraren eskutik izango da hilaren 27an, 6-10 urte arteko neska-mutikoentzat. Gonbidapenak aurreko astean zehar eskuragarri liburutegian.



Kultur Jardunaldiak Zuazola institutoan



Kultur egitarau zabala antolatu dute Zuazola institutoan datozen asteetarako. Gaur bertan, otsailak 6, **musika saio didaktikoa** izango dute Xabier Ugarteren eskutik. Hilaren 11n, Eskola Agenda-21 programaren barruan, **elikadura jasangarriari** buruzko sentsibilizazio saioa izango dute, eta egun berean **antzerki saioa** ingelesez ('Destination: London'). Otsailaren 14an, 12:00etan, 'Euskal Herriko altxorretan barrena' izeneko **bideo-**

dokumentala eskainiko du Arkaitz Astiazaranek. Hilaren 17eta 18an **Autodefentsa Feministaren** inguruko tailerra egingo dute, eta hilaren 20an elikadura izango dute hizpide: batetik **txokolateari** buruzko hitzaldi-tailerra izango dute Antton Azpiazuren eskutik, eta, bestetik, 'Gosari osasungarria' izeneko tailerra Amaia Diaz de Monasterioguren gidatuta. Otsailaren 20an, 'Bizkaiko burdinaren kabotaia' izeneko hitzaldia emango du Urdin Elortzak. Hilaren 24an askotariko **tailerrak** egingo dituzte (bitxigintza, graffitiak, cup cake-ak, larrua, makramea, eskalada, argazkigintza, bizikleten mantenua, gozogintza, orratz lanak, goma-eva, makilajea...). Hilaren 27an, ikerkuntzarako zaletasuna sustatzea helburu duen 'Training Caravan-ikerlarlariak gelan' izeneko saioa izango dute. Jardunaldiak ematera emateko, otsailaren 28an **rock kontzertua** izango dute eguerdiko 12:00etan, ikasle eta ikasle ohien taldeen eskutik.

Bestalde, kultur jardunaldian dirauten bitartean bi erakusketa ere antolatuko dituzte: 'Haurren eskubideak' eta 'Emakumeen eskubideak' izeneko argazki erakusketak, biak ere Amnistía Internacional erakundearenak.

'AMARAUN'
20. urteurreneko diskoa
plazaratu du Ganbarak

Ganbara Abesbatzak 20 urte betetzen ditu aurten, eta ospatzeko 'Amarau' izeneko diskoa plazaratu dute. Hamazazpi kantu bildu dituzte, estilo ezberdinetakoak: euskal folklorea, gopela, polifonia... Turismo bulegoan, Arantzazuko dendan eta herriko zenbait establezimendutan (Haritza, Izarraitz, Pake Leku, Txokolateixia, Sesiñena) eros daiteke diskoa, eta baita internet bidez ere (www.ganbara.org).

Hogeigarren urteurrena borobiltzeko, Aitor Binaek zuzentzen duen taldeak Espainiako Gran Premio Nacional de Canto lehiaketan parte hartuko dute apirilean, eta urte bukaerari Carmina Burana abestukodute.



OÑATIKO XVIII**OTSAILAK 17 - MARTXOAK 2**

INGURUMEN JARDUNALDIAK

Aurtengo ikasturtean Natur Eskolak 20 urte betetzen ditu, eta atzera begiratu bat emanda, bide xume bat urratu dugula esan daiteke. Bide honetan hainbat ekimen bultzatu eta egiten saiatu gara, beti ere herritarren laguntza eta parte hartzeari garrantzia handia emanez. Herritar orori zuzendutako ekimen hauetako bat "Ingurumen Jardunaldiak" dira, aurten XVIII.enak, eta oraindik egitarau guztia itxi



**Natur Eskolak
20 URTE
betetzen ditu aurten**

gabe dagoen arren (baliteke beste hitzaldi, pelikula edo aktibitateen bat gehitzea programari) hemen aurreratzen dizuegu orain arte aurtengo egitarauan sartu duguna. Dena dela, adi agon zaitezte argitaratuko ditugun esku-programa eta kartelei, bertan egitarau osoa agertuko baita. 20014ko Ingurumen Jardunaldiak otsailak 17a eta martxoaren 2a bitartean izango dira eta denontzako ateak irekita daude.

EGITARAUA

■ ERAKUSKETA

► 'Egurra eta natura'

Imanol Artola basozainaren erakusketa, kultur etxean, otsailaren 17tik martxoaren 2ra Zuhaitza barrutik ezagutzeko aukera izango dugu. 1500 enbor zati inguruko xiloteka du Zegaman

■ PELIKULAK

Zine Klubaren barruan, kultur etxean, arratsaldeko 8etan

► OTSAILAK 20, OSTEAGUNA 'Yasuni: dos segundos de vida'

Leonardo Wild-en pelikula, Ekuadorrek bertako Yasuni parkeko petrolio erreserbak ez ustiatzeko hartutako konpromisoaren inguruan.

► OTSAILAK 27, (20:00) 'Guadalquivir'


Joaquin Gutierrez Acharen pelikula. Cazorla, Sierra Morena eta Doñanako itudi ikusgarriak eskaintzen dituen lana

■ HITZALDIAK

Kultur etxeko areto nagusian, arratsaldeko 7etan

► OTSAILAK 18, ASTEARTEA 'Agortzearen dauden hidrokarburoen azken tantak frackingaren bidez?'

Hizlaria: Azaitz Unanue, 'Fracking Ez Araba' taldeko kidea



► OTSAILAK 19, ASTEAZKENA 'Yasuni: petrolio, ekonomia eta bioaniztasunaren kontserbazioa'

Hizlaria: Zehazteke

► OTSAILAK 25, ASTEARTEA '42.000 miliako itsaspeko bidaia; Malaspina 2010: zirkumnabigazio espedizioa'

Hizlaria: Iñigo Azua. Mikrobiologoa, EHUKo irakaslea

■ ZUHAITZ FERIXIA MARTXOAK 1, LARUNBATA

Herriko plazan goizeko 9etatik aurrera. Mintegi desberdinetako salmenta postuak egongo dira: zuhaitzak, fruta-arbolak, landareak... Erlazainak eta eztingileak ere egongo dira eta baita erlearen garrantziaren eta Asiako liztorraren inguruko erakusketa

■ ZUHAITZ EGUNA

► OTSAILAK 23, IGANDEA

Goizeko 10etan herriko plazan. Herri-guneko parkeetan zuhaitz landaketa egingo da.

► MARTXOAK 2, IGANDEA

Goizeko 9:30etan Unaimendin. Aloña-Lagunak taldearekin zuhaitz landaketa Duru-Aloña bitartean.

CORTABARRIA**INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA****Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa

Tel.: 943 78 12 65
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 85

OTSAILEKO AGENDA

otsailak
14

KONTZERTUA GAZTELEKUAN 'BIDE ERTZEAN'.



Ubeda anaiak buru dituen BIDE ERTZEAN rock taldearen kontzertua izango dugu Gaztelekuan hilaren 14an. Tolosarrek '77' izeneko azken lana aurkeztuko dute. Lan berri honetan 70eko hamarkadan ipini du begipuntua taldeak. Baina nostalgiatik baino, hausnarketatik dute gehiago kantu berriek. Aurretik Governors taldeak joko du. [Larunbata, 22:30](#)

otsailak
16

KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'FIACHRAS'. Rock-folk musika.



Azkenaldian Euskal Herrian rock-folk musikan egon den gorakadaren errudunetako bat da Fiachras taldea. Bi disko luze eta 'Sumision City Blues' talde gasteiztararekin batera egindako disko labur bat argitaratu dituzte. Ibilbide luzeko taldea, eszenatokian urte askoan zehar dabilena eta kontzertuetan primeran pasa arazi eta abestera gonbidatzen duen horietakoa. [lgandea, 19:30.](#)

otsailak
23

KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'O. Abrego eta M. Hurtado'

'Bap!' taldeko kide ohia, 'Inoreneroni' taldeko abeslaria dugu egun Okene Abrego. Erritmo azkar eta oldarkorrek jorratu izan ditu ohikoan, bere ahots berezi eta sakonaz beti ere. Oraingo honetan Mariano Hurtado ('Inoreneroni', 'El Hombre Burbuja') baxu-jotzailea izango du laugan eskenatokian. [lgandea, 19:30](#)



DIY ikastaroa

Do it yourself! / Egin zuk zeuk!

Ohiko eskulan ikastaroez gain, aurten aldian aldiko ikastaro laburrak antolatzen ari da udal Kultura saila; hala, azaro-abenduan zehar Irratigintzari buruzkoa antolatu zuen, eta orain berriz **DIY** (Do it yourself / Egin zuk zeuk!) izeneko ikastaroa antolatu du.

Etxean dauzkagun gauza "zaharrak" (zereal kaxak, zapata kaxak, kristalezko poteak, tela edo kamiseta zaharrak, marko zaharrak...) eraldatu, pertsonalizatu eta erabilera berria emateko aukerak ikusi eta landuko dira ikastaroan, Irati Ugarteren laguntzarekin.



Otsailaren 14an hasi eta martxoaren 14an amaituko da ikastaroa. Ostiral arratsaldetan (18:00-20:00) izango dira saioak; bost guztira. Prezioa: 25€ (langabetuentzat doan. Agiri ofiziala aurkeztu beharko dute). Beste 15 euro ordaindu beharko dira ikastaroko materiala ordaintzeko.

Izen-emate epea otsailaren 3tik 12ra zabalduko da, kultur etxean bertan, arratsaldean, edo kultura.idazkaritza@oinati.net helbidera idatziz. Hamar ikasle izango dira; jende gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo da. Ordainketa otsailaren 14tik 21era egin beharko da.

Martxoa eta apirila artean, oinarritzko jostuntza ikastaroa antolatuko du Kultura sailak.

● Argazkigintza ikastaroa oinarritzkoa

Plazaola argazki dendak antolatuta, oinarritzko argazkigintza ikastaroa egingo da martxoaren 1etik apirilaren 12ra. Larunbat goizetan (09:00-13:00) izango dira saioak. Plaza mugatuak (12). Prezioa: 75€. Izen-ematea Plazaola argazki dendan edo plazaoladigital@gmail.com helbidean, otsailaren 28a baino lehen.

● Musika bandaren kontzertua

Iñazio Ibarrondok zuzentzen duen musika bandak hileko kontzertua eskainiko du otsailaren 23an Santa Ana aretoan, 12:45etan.

HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO ANTZERKIA

'KIBUBU'

otsailak
15

Udal Kultura sailak antolatuta, 'Marie de Jongh' antzerki taldearen 'KIBUBU' antzezlanak ikusteko aukera izango dugu otsailaren 15ean. Haur eta gaztetxoei zuzendutako ikuskizuna da, errespetua eta askatasunari buruzkoa.

Xebas eta *Cocó* pailazoak ibilerak kontatzen ditu. Ikusleak erakartzeko asmoz, benetako gorila bat kontratatzea erabakitzen dute pailazoei; gorila ondo hezi eta ikuskizunean parte hartzea lortzen badute, arrakasta ziurtatuta dutela uste dute. Hala ere, ez da gorila izango esperientzia honetatik ikasiko duena; *Xebas* eta *Cocó*-k ere, sekula ahaztuko ez duten lezioa ikasiko dute. Herriko hiru ikastetxeetan lanketa berezia egin dute antzezlan honen inguruan. Bi saio egongo dira (50 minutu), 16:30etan 18:00etan, Santa Ana. (Sarrerak: 3,5€ / www.barrabarra.eu/events/buy/781)



Errespetua eta askatasunari buruzko ikuskizuna

HELDUENTZAKO ANTZERKIA

ZAZPI ALDIZ ELUR (Mikel Laboa elurretan)

otsailak
28

Udal Kultura sailak antolatuta, Ttanttaka taldearen 'Zazpi aldiz elur' antzezlanak ikusteko aukera izango dugu. Bernardo Atxagak idatzi eta Mireia Gabilondok zuzendutako lana da. Gau elurte batean bost lagun elkartuko dira argi txiki eta bero baten inguruan. Laboaren musika entzunez, haren nahiak, bizipozak, eta gauza intimo eta pertsonalez jardungo dute, ausardiaz, Mikelek egin ohi zuen bezala; esperimentatu, jolastu, hitzegin... aske sentitu eta sentiarazi. **Santa Ana, 22:30**

Sarrerak (10€) aurrez salgai www.barrabarra.eu/events/buy/780



ANTIXENA GAZTETXEAN OTSAILEAN

► OTSAILAK 9, IGANDEA (19:00)

ZINE KLUBA: 'Amour' (Michael Haneke, 2012)

► OTSAILAK 15, LARUNBATA

Sagardotegi herrikoa.

► OTSAILAK 16, IGANDEA (19:00)

ZINE KLUBA: 'Gatza' preso ohiari buruzko dokumentala.

► OTSAILAK 19, ASTEAZKENA (18:00)

HIZKETALDIA Andaluziako lur okupazioei buruzkoa, 'Txarli' oñatiarraren eskutik.

► OTSAILAK 21, OSTIRALA (22:00)

KONTZERTUA: 'Mobydick' bakarlaria.

► OTSAILAK 22, LARUNBATA (23:00)

KONTZERTUA: 'Malenkonia' eta 'Izaki Gardenak'

► OTSAILAK 23, IGANDEA (19:00)

ZINE KLUBA: 'Z' (Costa-Gavras, 1969)

► OTSAILAK 28, OSTIRALA

IRAKURLE TALDEA: 'Autokarabana'. Fermin Etxegoien idazlea bertan izango da.

OHARRA: Antixena gaztetxeko asanbladak zapaturo egiten dira goizeko 11:30etan.

● Ikastaroak KZgunean

Honako ikastaroak antolatu dituzte Oñatiko KZgunean urtarilerako. E-ADMINISTRAZIOA: 'Metaposta' (ots. 27); OINARRIZKO INTERNET: 'Internet ikastaroa' (ots. 2-14); IRUDIA ETA SOINUA: 'Irudi eta soinu ikastaroa' (ots. 17); SOFTWARE LIBREA: 'Software libreko ikastaroa' (ots. 7); SARE SOZIALAK 2.0: 'Youtube' (otsailak 4); IT TXARTELA: 'IT Txartela' (ots. 26). Informazio gehiago: 943 023672 edo tutor.onati@kzgunea.net helbidera idatzita.

caravanas  oñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Oñate zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Oñate zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



**HERRI AURKEZPENA
ELTZIA EGITASMOAREN II. FASEA**

Igo faseko ondorioen aurkezpena
**II. Fasearen aurkezpena:
ZER eta NOLA**



**OTSAILAK 11, asteartea
19:00etan
ETEO eraikin zaharrean**

‘ELTZIA’ EGITASMOA GIZARTERATZEA ETA ERRADIOGRAFIA

1. Oñatiko herri mugimendua anitza da eta funtzionamendu eredu oso ezberdinez osatuta dago: historikoak, sortu berriak, urte guztiko dinamika dutenak, ekintza puntualak antolatzen dituztenak, diru publikoarekin kudeatzen direnak eta, gutxi batzuk, autoeraketan oinarritutakoak.
2. Aniztasun eta herri bizitza dinamiko honek hiru ondorio nagusi sortzen ditu: aukera asko dagoela, aktibismoan lan egiten duten kideen dispersioa eta, azkenik, eskaintza eta baliabide aldetik gainkarga bat.
3. Elkarte eta talde batzuk toki baten beharra esplizituki agertu dute, beste batzuk aldiz, tokiz aldatzeko beharra dute... Harremana izan dugun gehientsuenentzat ELTZIA egitasmoa, egitasmoa interesgarri, aberasgarri eta aukera berriak sor litzakeena da. Garrantzia berezia eman zaio lan egiteko era berriak sortzeari, baliabideak elkarbanatzeari eta batez ere elkarlanari.
4. Herriko artisau, sortzaile eta arte ederretako eragileek berriz, inoiz ez dute izan lan egiteko espaziorik. Batzuk espazio pribatuak erabiltzen dituzte eta beste asko hala moduz konpontzen dira. Sormen espazio baten beharra derrigorrezkoa dela adierazi dute behin eta berriz.
5. Nahiz ELTZIA egitasmoa abiatu genuenean bi kontzeptutan oinarritu ginen: kultura eta sormena, lehenengo fase honetan beste ildo batzuk lantzeko beharra ere identifikatu dugu: ekintzailetasuna eta enplegua eta udal zerbitzuen beharrianak

‘ELTZIA’ EGITASMOA - II. FASEA: **ZER? ETA NOLA?**

2014ko otsailetik ekainera bitartean ETEO eraikin zaharrean ZER egon behar den eta NOLA gauzatuko den proiektua landuko dugu.

Egitasmo honetan kide, interesatu edo zure aletxoa jarri nahi izan ezker, hauxe duzu momentua, orain hitz-egingo baitugu zertarako erabiliko dugun espazio hau, zer nolako baliabideak egon behar diren bertan, nola antolatua egongo den, nortzuk egongo garen bertan,... Hauxe duzu hitz-egiteko momentua.

5 lan jarriko ditugu martxan:

- **SORMEN** eltzia: arte ederrak, irudia, soinua, ikus-entzunezkoak, artisauak, moda, arkitektura...
- **MUSIKA** eltzia: rock taldeak, Batukada, Trikitilariak, ...
- **GORPUTZ** eltzia: dantza, antzerkia, gorputz adierazpen ezberdinak,...
- **HERRI MUGIMENDUEN** eltzia: kultur eta gizarte-ekintza elkarrekin eta taldeak
- **UDAL** eltzia: udalaren aldetik egon daitezkeen proposamenak

Hauetaz gain, behar beharrezkoa da honako bi gai hauek ere lantzea etorkizuneko proiektua diseinatzeko orduan:

- **AUZO** eltzia: auzokideak edo herriko beste auzo batzuk dituzten egitasmo edo beharrak kontutan hartuta diseinatzeko den eltzia.
- **EKINTZAILETASUNA** eta **ENPLEGUA**: ELTZIA egitasmoak ekintzailetasunaren alorrean zertan lagundu dezakeen,

Deialdiak e-mail eta komunikabideen bidez egingo ditugu. Beti ere zuen inguruan egitasmo honekin interesa izan dezakeen herritarrei ere zabaldu deialdia.

**Otsailetik ekainera bitartean ETEO eraikin zaharrean
ZER egon behar den eta NOLA gauzatuko den
proiektua landuko dugu.
Hauxe duzu hitz egiteko momentua**



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Otsailak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27
eta martxoak 7, 8 eta 9.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Otsailak 10, 11, 19, 20 eta 28, eta
martxoak 1 eta 2.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Otsailak 12, 13, 21, 22 eta 23, eta
martxoak 3 eta 4.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Otsailak 6, 14, 15, 16, 24 eta 25,
eta martxoak 5 eta 6.

Guardiako taxilariak

URT. 27 - OTSAILAK 2

JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

OTSAILAK 3 - 9

JOSE LUIS RABANETE
600 57 50 92 / 658 73 27 09

OTSAILAK 10 - 16

JOSU LERTXUNDI
663 031 322

OTSAILAK 17 - 23

ANA ORUETA
650 059 999 / 943 53 40 82

OTS. 24 - MARTXOAK 2

JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

MARTXOAK 3 - 9

JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

OÑATIKO TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa.....943 78 34 53
Arrikutz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa.943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritza943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILEAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENEFE902 24 02 02

Merkatu Txikia

Lokala alokatzen da Bidebarrieta kalean, 68m²-koa, obra eginda.
Deitu: 943533637

Pisu berria salgai Oñatin, Kurtzebide kalean. 90m²; trastelekua eta 2 garaje aukeran. Deitu: 651 709 257

Pisua alokatzen da Zubillagan. Altzariz jantzia, berritua eta kalefakzioarekin. Deitu: 626 819 124.

Klase partikularrak Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezian graduatutako neska 2013/14 ikasturtean Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko prest. 687 114 474

Pisua errentan hartuko nuke, 2 edo 3 logelakoa. Errenta gisa 450-500 euro ordaintzeko prest nago. Deitu: 663 764 511

Oñatiko emakume batek apartamentu txikia alokairuan hartu nahi du.

Herrigunean. Deitu: 656 945 125 / 943 253 968

Garaje irekia ematen da errentan Kurtzebide kalean. Deitu: 696 857 560

Pisua errentan Bidebarrieta kalean (95m²). Guztiz jantzita. Igogailua, trastelekua, garajea aukeran, terraza zabala, 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta hall-a. Interesatuak deitu: 629 373 919.

Garaje plaza itxia alokatzen da Atzeko Kale - Bidebarrieta inguruan. Deitu: 619 817 072.

BMWa salgai, compact serie 3 (318 ti) modeloa. Narruzko jarlekuak, aleazio haguak (Ilantak). Ondo zaindua. Jabe bakarra. Prezio negoziagarria. Deitu: 619817072

Garaje itxia alokatzen da Arantzazuko Ama kalean. Deitu: 667 742 095.

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

**OTSAILAK 14
MARTXOAK 14
APIRIKAK 4
MAIATZAK 9
EKAINAK 13
IRAILAK 12**

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

OTSAILAK 25

Plastiko batzea ohiko bilketa puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutxuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbatak 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino lehen, 943 71 19 38 zenbakira deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
artean atera behar dira.

Antxiñako fotografía

Ospittaleko ume txikiñen eskolia

A spalditxotik geukan gaurko argazki hau sail honetara ekarteko gogua. Biharbada ikusi dozue beste lekuren batian argittaratuta, baiña protagonisten izen barik. Etzan samurra neskati-llatxo horreik zeintzuk ziran kon-turaketia. Oraingo honetan, dan-danek ezpada be, gehixenen ize-nak jakittia lortu dogu, ezkutuan geratu gura izan dauen informa-tzaille fin batzuei eskerrak. Makiña bat ume oñatiar pasau zan **ospital zaharreko eskola** horretatik. Kari-dadeko monjen ardurapeian eguen **La Milagrosa** izeneko kolejixo ha neskati-llen-tzat zan, baiña beheko mailletan mutikuak be onarketan zittuain. Guk geuk be hantxe ikasi gittuan lehenengo letrak.



Hango maistren artian ezagunenetakua **Sor Paulina Okariz** (1882-1974) izan zan. Lizarra-Estella aldeko Iurramendi-Montejurra azpiko **Morentin** herritxuan jaixotako emakume hau hogeitertekin etorri zan gure herrira eta luzaruan jar-dun eben parbularixoko neskati-llen irakasle-lanetan. **Eskolia eta ospital zaharra 1968 aldera bota ziran** oraingo R. M. Zuazola institutua jasoteko. Gaurko fotografixan honetan 1932xan eukan ikasle txikiñekin agiri da monja naparra. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honei-txek dittuzue:

Goixeneko ilaran: **Anjeles Biain**, Kanpantxokua; **Maria Elena Otalora**, Kale Zaharrekua; **Anparo Bikuña**, San Juan kalekua; **X. X.**; **Pilar Altuna**, Kale Barrikua; **X. X.**; atzerago **Luzia Kortabarria**, Kale Zaharrekua; **Modesta Iñurritegi**, Kale Barrikua; atzian zutik, **Kasimira Kortabarria**, Kale Zaharrekua; honen aurrrian, **Juli Kortabarria**, aurrekuaren ahiz-pia; **Milagros Madinazkoitia**, Kale Zaharrekua; **Rosarito Otaño**, Kale Barrikua; **Mari Tere Bengoa**, Kale Zaharrekua; **Mari Kruz Medrano**, Bidebarrietakua; **X. X.**; **Regina Kortabarria**, Kale Zaharrekua; **Karmen Kortabarria**, Goribar auzo-ko Ugartondokua; **Maxima Anduaga**, Mendiko kalekua; **Mari Tere Arregi**, Kale Zaharrekua; eta **Anjeles Murua**, San Juan kalekua.

Hirugarren ilaran: **Maritxu Elortza**, Araotz auzoko Lurgorritakua; **Nieves Madina**, Atzeko kalekua; **X. X.**; **Axun Kor-tabarria**, Kale Zaharrekua; **Juanita Bikuña**, San Antue kalekua; **Karmen Etxeberria**, Kale Barrikua; **Sabina Guridi**, Kale Barrikua; **Juli Murua**, Kale Zaharrekua; **Tina Ezenarro**, Kale Zaharrekua; **Arantxa Uribarri**, Kale Barrikua; **Ines Urkia-ga Luzar**, Kale Zaharrekua; **Tere Ibarbia Arkauz**, Goizeko Izarra etxian bizi zana; **Maria Luisa Beitia**, Kale Zaharrekua; **Tere Medrano**, Bidebarrietakua; eta **X. X.**.

Bigarren ilaran: **X. X.**; **Maritxu Gorrotxategi**, Patrue kalekua; **X. X.**; **X. X.**; **Maritxu Muñoa**, Kale Zaharrekua; **Trini López**, tren-estaziñokua; **Juanita Oleaga**, Kale Zaharrekua; **Juanita Dorronsoro**, San Juan kalekua; **Andina Arrazola**, Kale Zaharrekua; **X. X.**; **Elisabet Igartua**, Kale Zaharrekua; **Genoveva Elortza**, San Juan kalekua; **Arantxa Lazkanoitur-buru**, Kale Zaharrekua; eta **Mari Karmen Lazkanoiturburu**, Kale Zaharrekua.

Beheko ilaran, lurrian jasarritta: **Maria Luisa Oleaga**, Bidebarrieta-Lekunbarrikua; **X. X.**; **Ana Mari Urrestarazu**, Atze-ko kalekua; **X. X.**; **Arantxa Zelaia**, Atzeko kalekua; **Pepita Madina**, Atzeko kalekua; **X. X.**; **X. X.**; **X. X.**; **Loli Urkiaga Luzar**, Kale Zaharrekua; **X. X.**; **X.X.**; eta **Pilar Guridi**, Kale Zaharrekua.

J. E

2, 3 eta 4 logeletako ETXEBIZITZAK

177.259€ -tik



MOJASORO S.L. Informazioa: 689 420 761 Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net



grupo
amuebladora
mondragonesa

centro hogar MUEBLES



BANAK IMPORTA-n zure altzari guztietan %60ko DESKONTUAK



Zigarrola 1 • Tel.: 943 71 10 12 • ARRASATE
Zerkaosteta, 3 • Tel.: 943 71 10 11 • ARRASATE